

Arrasate

P R E S S



ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 1a / 575. zenbakia



**Animalien
aztarnen
erakusketa**

Ingurugiro Eskolako Natura Jardunaldien barruan

ORAIN ETA HEMEN: TELEFONO ANTENEN ATZERAPENA/8 • KIROLA: ZIKLOTURISTAK, MARTXAN/10

BASATI TABERNA

Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Traguak

Goizeko 10:00etatik
aurrera zabalik.
Astelehenetik-Ostiralera



26 EGUN
FALTA DIRA



Zure gorputza ZAINTZEN dugu
OPORREZ goza dezazun

Aste Santuko eskaintza:

Gorputz esfoliazioa
Gorputz hidratazioa itsas belarrekin
+

Aurpegiko azal garbiketa

Bakarrik, 60 .

MIREN GARAI

Zarugalde 23, 2. ezk. · Arrasate · 943 79 96 90

KALEINKESTA/ Cerrajeran erlojue daukon edifizioe bota ala gorde egin biherko litzake?




PATXI BERGARETXE
Jubilaue

Uste dot etxe hori alperrik daguela; ez leuskit penarik emungo. Hori jenda daguen gauza bat da, edifizio zahar bat da. Eta neretako ez dauko zentzurik hori hor egotiek.



KORO ABETXUKO
Langillie

Nik gorde egingo neuke. Beti egon izen da hor, horregatik bakarrik gorde egin biherko geunkiela uste dot. Penie emungo leuskit botako baleue, bai ba! Arrasateko zeozer da hori.




JUAN JOSE URIBARREN
Jubilaue

Neu poztu be egingo nitzake erlojue martxan ipiñi ezker. Lehen, handik pasetan zienak beti begiketean euen gora, baiñe oin, beti dago geldi. Erlojue konpondu eta edifizioe gorde.



PILAR ERDOZIA
Langillie

Uste dot oso edifizio politte dala eta, gaiñera, Mondragueko historixa industria-laren oroitzapena dala. Orduen, beste gauza batzuk moduen, daguen moduen geratu biherko litzake.



ROMAN AIERBE
Langillie

Nik uste dot politte dala. Gaiñera, nik beti ezagutu izen dot hola, eta oso ondo pentsauko litxakit gorde tie. Eta, bide batez, hango erlojue bere orduen ipiñiko baleue, askoz hobeto.



SARA ARRIBAS
Etxekoandrie

Nik uste dot gorde egin biherko litzakiela: historixie daukola esaten bada, eta herrikue izenda... Bai, duda barik. Uste dot gorde egin biherko leukiela, bai edifizioe bai erlojue be.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK BALDOSA ARTEKO HUTSUNEAK ESTALTZEN Sarri gertatu izan zaigu, euria egiten duenean, kaletik goazela kolokan dagoen baldosa bat zapaldu eta hankak bustitzea. Bada, aste honetan, Udalak aginduta hainbat langile baldosak ondo jartzen ibili dira. Ez dakigu datozen egunak euritsuak izango diren edo ez, baina, seguru aski, baldosak ondo jartzea gehienondako eskertzekoa izango dela.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /12

KULTURA /14

ELA-Auzo Lagun konponduta

ELA sindikatuak eta Auzo Lagun enpresak konpondu dute kaleratutako langilearen arazoa.

Zaldibarren 1. fasea bukatu

Oraingo asteburuan, lehenengo faseko azken partiduak jokatu dira. 16 talde sailkatuko dira.

Emakume zinegileak

Martxoaren 8a argudio hartuta, martxoko egunetako zinekluba emakume zinegileekin bete dute.

ASTEKODATUA

1.311

HERRITARREK JASO DUTE KZ-REN DIRULAGUNTZA

1.311 arrasatearrek erosi dute ordenagailua, Eusko Jaurlaritzaren *Konekta Zaitetz* programaren dirulaguntza baliatuta. Horietatik, 857 gizonezkoak dira eta 454, emakumezkoak.

BESTEKEESANA

“Ametsetan gehienak amesgaiztoak izaten ditut. Baina ostretan perlatxoak nola, tarteka amets

ederrak ere bai. Honako hauxe bezala. Gasteiztik Arrasaterantz nindoan, poz-pozik (...) Aramaioa heldu eta a zer poza! denak euskaraz berba egiten, jo eta su, abespeluan (...) Afalostean, Arrasateko erdialdera joan ginen. Zahar eta gazte, mundu guztia ari zen euskaraz, gehienak bertako hizkera jatorrenean. Orduak aurrera, iritsi zen Gasteizera itzultzekoa. Legutio inguruan alkoholemia kontrola. Ni urduri, positibo emateko beldurrez. Ertzainak oso atsegin. Lehenengo berba euskaraz egin zidaten. Gero jabetu nintzen bata bizkaiera ederrean ari zela eta bestea euskara batu garbi eta txukunean”.

TXIPI ORMAETXEA
GARA/02-02-26

HERRITARRENBERBAK/ Eneko Barberena



Hau dena aldatu nahi nuke

Francisco Franco hil zen, baina lur azalean lurperatu zuten”, dio Joseba Sarrionandiak bere *Hitzen Ondoeza* obran. Orain, zenbaitek ereserki nazionala eta bandera aurrekonstituzionala (hots, faxista) berreskuratzeko aldarrikapena egiten dute, abertzaletasun espainiarra izenean. Ni, noski, ez nago ados eta baliteke errua ikastolek izatea. Villarren arabera, gorrotoan hezia izan naiz. Eta, noski, banderak, himnoak, Ferrolgo harakina argazkiek, apaizek eta gainontzeko elementuek ez dute amorrua handitzen, maitasuna baizik. Maitasun konstituzionala.

“Mariano” Garzon bakearen Nobel sarirako izendatu dute. Zergatik ez Ariel Sharon? Milosevic epaitzen ari dira. Zergatik ez Fraga, Gasteizen hildako hiru langileengatik? Non da Kissinger? Eta hau dena aldatu nahi nuke.

Horrek guztiak hainbat galdera sorrarazi dizkit eta

publikoki egin nahi nituzke. Zergatik ez da berdina auto bat erretzea Valentzian edo Bilbon? Zergatik ez dago euskaraz ikasteko eskubiderik? Zergatik ez daki lehendakariak euskaraz? Zergatik ezin dezaket neure soldata igo neure kabuz?... Gustatuko litzaidake norbaitek erantzutea galdera horiei. Bakoitzak pentsa dezala nahi duena, pentsatzeko autonomia badu, behintzat. Izan ere, nire irakasle bati arrazoa ematen diot ondorengo kontuan. Haren ustez, gizarte honetan merkatuan

soilik dugu askatasuna. Gauza bat edo bestea erosteko. Besterik ez. Hasierako esaldira itzuliz, inoiz ez naiz egon Valle de los Caidos delakoan. Badakit jendea joan izan dela, Franco benetan hil dela ziurtatzeko. Hark bakarrik sostengatzen al zuen frankismoa ala? Joxe Ripiauren kanta segituz, “jendeak pentsatzen du politikariak direla benetan boterea mane-jatzen dutenak...”.

“Valle de los Caidos-era jendea joan ei da, Franco hil dela ziurtatzeko. Hark bakarrik sostengatzen al zuen frankismoa?”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERRÉDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Boinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 1**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ZAPATUA, 2**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- DOMEKA, 3**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 4**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- MARTITZENA, 5**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 6**
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUENA, 7**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorialdiko 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpeira eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

ARRASATE MUSIKAL
Gaur, egubakoitza, 18:30ean, Legazpiko Musika Eskolak kontzertua emango du Amaia Udal Antzokian. Era berean, domekan, 12:30ean, Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak emanaldia egingo du leku berean. Azken kontzertu horretarako sarrera bost euro kostatuko da (Arrasate Musikaleko bazkideendako, hiru euro).

PIZTIEN GAINEKO BERBALDIA
Hilaren 4an, astelehenean, 19:00etan, Migel Mari Elosegi biologoak berbaldia egingo du Monterronen. Gaia: *Piztien egoera Euskal Herrian*.

GINEA BISSAUKO EGOERA
Hilaren 5ean, martitzenean, 19:00etan, Ginea Bissauko egoera sozio-politikoaren gainean egingo du berba Marcelo Pedro D'Almediak Monterronen.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Hilaren 7an, eguenean, 21:30ean, *Código Desconocido* filma izango da ikusgai Amaia Udal Antzokian, Emakume Zinegileen Zikloaren barruan.

TXATXILIPURDIREN BATZARRA
Txatxilipurdi elkarteak batzar nagusia egingo du martxoaren 15ean, 19:00etan, AEDko egoitzan.

AEDrenAGENDA

AED-KO BATZAR NAGUSIA
AED elkarteak batzar nagusia egingo du martxoaren 7an, eguenean, 19:00etan, AEDn bertan. Landuko dituzten gaien artean, iazko jarduera, datorren urteko egitasmoak eta aurrekontuak, eta Arrasateko euskararen plan estrategikoa, hain zuzen ere.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


EKI taldea errepide sarearen aurka

EKI ekologista taldeak Deba-goiena zeharkatuko zuten aurrez ikusitako komunikazio sareei buruz prentsurrekoa egin zuen. Horien eraginez mintzatu ziren eta azpimarratu zuten erruduna garapen ekonomikoa zela. Kale eta erakundeetan kanpaina bultzatzeko asmoa erakutsi zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ufala"



Uholdea.
-Agostuko ufalak kalte aundixak ein zittuan.


GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 20	5 °C
MAXIMOA Martitzena, 26	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	29,4 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 20	11 °C 5 °C 18 l/m²
Eguena, 21	11 °C 5 °C 3,5 l/m²
Egubakoitza, 22	11 °C 8 °C 4,4 l/m²
Zapatua, 23	12 °C 9 °C 2,9 l/m²
Domeka, 24	13 °C 8 °C 0,6 l/m²
Astelehena, 25	16 °C 5 °C - l/m²
Martitzena, 26	16 °C 9 °C - l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Aitor Olea, organojolea.

Aitor Olea organo jotzaile arrasatearra

Arrasatearra den arren, Lekeitioko parrokiako organo jotzailea da Aitor Olea. 32 urte ditu, eta orain dela 12 urtetik hona organoa jotzen du domekero Lekeition. Disko bat ere ateratu berri du. Organo kontuak berbagai izango ditugu zapatuan eta domekan, *Asteko Elkarrizketak* tartean. Aitor Iturriagarekin ere izan gara. Hark eta beste lagun batek Cerrajeraren erai-kin nagusia ez botatzea eskatu diote Udalari, Egitamu Orokorriari alegazioa aurkeztuta.

Maite Albes aurkezlea elkarrizketatu dugu

Goiena Telebistan aurkezle lanak egiten ditu Maite Albes arrasatearrak, eta datorren eguaztenean, irratan izango da *Soinuz Blai* saioan egiten duen lanaren gainean berba egiteko. Eguazteneko telebistaz aritzen gara irratan, eta datorren astean, Goiena Telebistaren txanda izango da. Bestalde, gogoratu gauez ere irratiak saioak eskaintzen dituela. Astelehenean, esaterako, *MIR* izenekoa, Gaizka Vitoriak eta Iban Idigorasek aurkeztuta.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**
21:00 MIR
- MARTITZENA**
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokutzen
- EGUENA**
21:00 Gailurretik/Mikelenea
- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak
- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Piedehierroren aldeko kale bilkura

Joan den zapatuan, Mikel Piedehierro errefuxiatu arrasatearraren egoera salatzeke kale bilkura egin zuten 50 bat lagunek Musakolan. Eta datorren martxoaren 9rako errefuxiatu horren aldeko manifestazioa iragarri du Iheslariak Etxera elkarteak.

Mikel Piedehierro estraditatzeko arriskuan dago. Hain justu, Frantziako Estatuak hilabete eman zien 17 euskalduni handik alde egiteko. Hilabeteko epe hori pasatu da dagoeneko, eta orain, zer gertatuko zain daude arrasatearra eta gainerako errefuxiatuak.

Toti Martínez de Lezea Monterronen

Arrasateko Institutuak 25 urte bete ditu aurten. Ospatzeko, makina bat ekitaldi antolatu du. Horien artean, martitzenean, Toti Martínez de Lezea idazle gasteiztarra Monterronen izan zen, institutuak gonbidatuta. *Euskal Herriaren historia eleberrigileen ikuspuntutik* izeneko hitzaldia egin zuen. Besteak beste, Villoslada, Campión, Pío Baroja eta Jon Etxaide idazleak izan zituen mintzagai, baita idazle horiek euskal arbasoen bizimoduaren inguruan argitaratu dituzten lanak ere.

Bestalde, institutuaren ospakizun ekitaldien barruan, datorren martxoaren 13an, Juan Kruz Igerabideren hitzaldia izango da udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Josu Onaindi CCOOko idazkari orokorra

Egubakoitzean, CCOO sindikatuak diploma banaketa egin zuen Arrasaten. Horretarako, sindikatuko idazkari orokorra, Josu Onaindi, hemen izan zen. Urterokoari jarraituz, heziketa sindikala landu dute CCOOko 47 delegatuk. Besteak beste, marko legalean, enpresa kontratuen kudeaketan, komunikazioan eta soldata gaitan jaso dute trebakuntza.



Sustoa Jolas Leku gozotegian

Eguazten iluntzean, susto galanta hartu zuten Zarugalden dagoen Jolas Leku gozotegian. Gozotegiaren azpian dagoen ganbara baten sua piztu zen. Horren ondorioz, suhiltzaileak etorri ziren eta berehala emendatu zuten sua. Ez zen ezer larririk gertatu, sua bizkor itzali zutelako.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Diru zikina!

Aste honetan bertan ezagutzera eman da Arrasateko familia bat egoera larrian dagoela. Joan den urteko azaro aldetik inongo diru sarrera barik daude eta, bizi diren etxebizitzako alokairua ordaintzen ez dutenez, handik botako dituzten arriskuan daude. Kasu hori antzeko beste batzuetatik bereizteko asmorik gabe, berorrek

gogora ekarri dit herri honetan, beste batzuetan bezalaxe eta agerian gelditzen ez bada ere, egoera ekonomiko oso larrian bizi den jendea ere bada dagoela. Ez dakit askorik diren, baina egon badaude.

Azken baten, egia da hemen diru dezente dagoela, kooperatibei, beste fabrika batzuei eta horrekin batera sortu diren zerbitzuei eta

horiei guztiei esker. Eta bizi maila horrek gure bizimodu oso eragin handia dauka. Askotan esan ohi da ea Arrasate eta bailara hau Suitza txiki bat ote den. Orokorrean hitz egitea aproposena ez bada ere, produktu edo zerbitzu asko, adibidez, garestiagoak dira, eta, zer esanik ez, etxebizitzaren salneurri eta alokairuei dagokienez. Lotsagarria! Bestalde, jendearen aisialdian ere nahiko argi ikusten da hori guztia.

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

ERLOJUA DUEN CERRAJERAKO ERAIKINA KOLOKAN DAGO

Union Cerrajera enpresako sarrerako eraikina -hau da, erlojua duena- kolokan dago. Egitamu Orokorraren arabera, eraikin hori ordenazioz kanpo geratu da, Deba errekarren gainean eraikita dagoelako, Gaur egun, Saiolan dago hantxe, hots, enpresa berriendako bulego eta lantokiak daude han. Eta

horien artean Goiena Komunikazio Kooperatibako bulegoak ere bai. Gauzak horrela, Udalaren asmoak jakin bezain laster, arrasatear talde batek eraikina kontserbatzea eskatu du. Union Cerrajera zeneko zutik geratzen den eraikin bakarra delako eta herriaren historia ere badelako. //B.

M

MEMESA

**Industria
hornidurak**

Tel. 943 71 24 25

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa

Tel: 943 79 76 58

ARRASATE

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ELKARRIZKETA

MIKEL ETXEBESTE / ABELTZAIN IZATEKO ARRASATEK LEZAUNERA JOANDAKO GAZTEA

“Domeka arratsalde batzuetan, aspertuta, etxera joatea igartzen dut faltan”

XABIER URZELAI

Lezaunera sartu aurretik dagoen bidegurutzean aurkitu dut Mikel. Goizeko hamaiketan sartu da ohera, gauean ogiak egin eta goizaldean banatzen ibili da-eta. Arratsaldeetan jai izaten du, eta Lezaun bisitatu eta elkarrizketa hau egiteko aprobetxatu dugu.

Zer egiten du Arrasateko kale-tar batek Lezaunen?

Gure ama hemengoa da, Lezaungoa, eta txikitan askotan etortzen nintzen hona. Gurasoei betidanik gustatu izan zaie herri hau, eta etortzen nintzen bakoitzean aitonari eta osabei hemengo lanak egiten laguntzen nien. Hortaz, gaztetatik animalia artean ibili izan naiz.

Institutua amaitu eta gero, argi zeneukan zer egin gura zenuen?

Argi neukan animaliekin zerikusia zeukan zerbaitetan egin gura nuela lan, baina ez neukan oso argi zertan. Albaitaritzza ikasteko aukerarik ez nuen, Logroñora joan nintzen, Ingeniari Agonomo ikasketak egitera. Nolabait esatearren, unibertsitatea gogorregia egiten zitzaidan, eta utzi egin nuen.

Baina ikasketak ez ziren hor amaitu, ala?


Ez, Logroñotik Gasteizera joan nintzen, eta abeltzaintzara eta nekazaritzara bideratuta zegoen modulu bat egin nuen. Oso gustura izan nintzen Gasteizen, unibertsitatean baino gehiago ikasten nuelako. Praktikak Legutioko etxalde baten egin nituen, eta horren ondoren hainbat kurtso-tan izan nintzen. Jaenen hilabete izan nintzen behiak jezteko sistema berriak ikasten, eta beste hiru aste Kantabrian egin nituen.

Eta ikasketa horiek amaitzerakoan, Lezaunera.

Bai. Hona etorri nintzenezan ez neukan oso argi zer egin gura nuen, eta oraindik bigarren urteko praktikak neuzkan egiteko. Osabak lana eskaini zidan, eta nik onartu egin nuen. Gero, Lizarrako etxalde batera joan nintzen lan egitera. Hiru mila txerri dauden etxalde baten izan nintzen lanean, eta, kontratua amaitzean, abenduan, atzeratuta neuzkan eskolako bigarren urteko praktikak egin nituen.

Orduan hasi zinen zure etorkizunean pentsatzen?

Baietz esango nuke. Nire asmoa zen artalde bat edukitzea, eta osaba asko poztu zen horientzun zuzenean. Gaur egun, esnea oso erraz saltzen da, baina nik



XABIER URZELAI

“Artalde bat eduki gura nuela esan nuenean, amonak sekulako atsekabea hartu zuen”

ardiei etekin guztia atera gura diet, eta gazta egiten ere ikasi gura dut.

Hortxe dago benetako negozioa?

Bai, osabak egiten dituen gazta guztiak saldu egiten ditu, eskera handia dago-eta. Horregatik gura dut prozesu osoa neuk egin;

“Arrasateko lagunak eta errugbiko taldearekin jokatzeari sumatzen ditut faltan bereziki”

ardiak eta arkumeak izateaz gain, esnea eta gazta ere nik neuk saltzea, hain justu ere.

Gazta ona egitea, ordea, ez da gauza samurra izango.

Ez. Badirudi osagai guztiak izanda beste barik egiten dela gazta, baina gazta ondo egiten jakitea gaitza da. Irailean, Aran-

“Lezaunen telebista gutxi ikusten dut. New York-ekoaz egun bi geroago enteratu nintzen”

tzazura joango naiz sei hilabete-ko ikastaro bat egitera, eta, beste gauza batzuen artean, gazta ondo egiten ikasi gura dut.

Momentu honetan okindegi baten zabilta lanean.

Bai. Nire egitasmoekin has-teko, proiektu bat aurkeztu behar dut, eta proiektu hori egiteko,

dirua aurrezteko behar-beharrekoa da. Komenigarria da proiektua norberaren poltsikotik ordaintzea, bankuari dirua eske-tzeko gero ere denbora izango dut-eta.

Nafarroako Gobernuak zelan portatzen da dirulaguntzekin?

Alde horretatik ezin naiz kexatu. Gaur egungo gazteek ez dute lanbide hau gura, eta gutxi gara abeltzaintzarekin jarraitu gura dugunok. Lanbide honetako jendea geroago eta zaharrago da, eta ez dago erreleburik. Hori gobernua badaki, eta dirulaguntza nahikoa izaten dugu.

Lantegi baten lan egitea zereden badakizu. Oso desberdina da?

Guztiz desberdina da. Lantegian zortzi ordu besterik ez da egin behar, eta hemen beti dago zer-bait egiteko. Horrez gain, hemen ez dago asteburuko edo hilabete-ko oporrik. Hala ere, ez nuke alde-tuko, lantegian beti berdina egiten duzulako. Hau gogorregia da, baina egun bakoitza desberdina da. Neguan lan handia izaten da; udan, berriz, lasaiago ibiltzen gara. Gainera, ez dut gusturik buru gainean sabaia daukadala lan egitea.

Zer igartzen duzu faltan Arrasatek?

Gauza asko. Arrasateko lagunekin egotea, esaterako. Zapatu arratsaldeetan, errugbiko taldearekin akordatzen naiz, nonbaiten egongo direla partiduren bat jokatzeko. Horrez gain, Lezaungo koadrila giroa ere desberdina da. Zapatu gauean bakarrik elkar-tzen gara, bestela lan egiten ibiltzen garelako. Arrasaten, berriz, beti dago norbait kalean.

Arrasaten gauza asko utzi dituzu. Zerbaitz damutzen zara?

Agian azkarregi etorri nintzela Lezaunera. Hona bizi izate-ra etortzeko erabakia azkar hartu nuen, eta lagunek zerbait jakin zutenerako, Lezaunen nengoa. Agian lagunekin agur-afari bat egin ez izanaz damutzen naiz.

Lezaungoak oso zakarrek dira.

Bai, eta fama hori Nafarroan bertan daukagu; hortaz, atzerri kontuak. Behin, herriko jaietan toreatzaile bat etorri zen, eta bigantxa bat aterako zutelakoa sekulako behia irten zen. Torreatzaileak ez zuen ezkutalekua irten gura, eta herritar batek motozerrarekin ezkutalekua moztu zuen. Sekulakoa izan ei zen.

Orain, Osasuna ala Real?
Hemengoek Realzalea nahiela esaten dute, baina Osasuna esango dut. Bestela...

Txomin Iturberi omenaldia egingo diote zapatuan Amaia Antzokian

UBANE MADERA

Bihar, zapatua, Txomin Iturbe arrasatearrari omenaldia egingo diote Amaia Antzokian. Batasunak prentsurreko baten iragarritakoaren arabera, Txomin Iturbe hil zela 15 urte bete direla aprobetxatuz, ibarreko gainerako preso eta gudariei ere egingo diote omenaldia antzokian.

Otsailaren 27an, Txomin Iturbe hil zela 15 urte bete ziren. Hori dela eta, omenaldia egingo diote: batetik, urteurrena gogoratzeko, eta, bestetik, "gaur egunean ere, Txomin konponbidearen alde legokeelako, eta hor gure konponbiderako konpromisoa berresten delako". Halaxe adierazi zuen Batasunak martitzenean egindako prentsurrekoan.

Horrela, bada, zapatuan, 18:30ean Seberren egingo duten manifestazioarekin ekingo diote. *Euskaldunon eskubideak lortu arte, aurrera bolie!* izango da leloa. 19:30ean, berriz, ekitaldi politikoa hasiko dute, trikitilariekin. Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak aurkeztuta, bideo proiektzioa izango da segidan, eta, gero, Xabier Zubizarretak Txo-



UBANE MADERA

Txomin Iturberen argazki erakusketa ere izango da zapatuko omenaldian.

minen gainean berba egingo du. Bukaeran, ibarreko preso eta gudariak gogoratuko dituzte, Agurra eta lore eskaintzarekin.

ARNALDO OTEGI

Ainhoa Permach abeslariak kantatuko du ondoren. Eta, gero, Batasuneko bozeramaile Arnaldo Otegi Batasunak proposatzen duen konponbide demokra-

tikoa jorratuko du. Oro har, lau ildo nagusi ditu proposamenak: bakea eraikitzea eskubideez mintzatzea dela; bakearen eraikuntza proiektu politikoetatik bereizi egin behar dela; bakea eraikitzea autodeterminazio eskubideaz aritzea dela; bakea eraikitzea aniztasuna errespetatzea dela eta autodeterminazioaz aritzea giza-eskubide batez mintzatzea dela.

ETAren azkeneko atentatua gaitzesteko proposamena

UBANE MADERA

Otsaileko bilkura egin zuen atzo udalbatzarrak. Hamabi gai zituzten lantzeko, tartean, Eduardo Madina Gazte Sozialisten ordezkariaren kontra egindako atentatua gaitzesteko proposamena. Izan ere, bai EAJk bai EAK ere ETAren azken atentatu hori gaitzesteko mozio bana aurkeztu

zuten. Betiko moduan, batak zein besteak atentatua gaitzetsi zuten, eta ETARI ekintza armatuak bertan behera uzteko eskatu zioten. Horrez gain, EAK euskal herritarren eskubideak onartzea eskatu zion Estatuko gobernuari, eta egoera konpontzeko bidea elkarrikeria dela nabarmendu zuen.

Bestalde, EAJk, besteak beste, krimen guztien aurkako kon-

promisoa erakutsi zuen eta elkarrikeria irekia eskatu zuen, bazterkeria eta baldintza politiko bako elkarrikeria.

Mozioez gain, Zabaletako proiektua, Maalako Errabala eta Tutoretzapeko Etxebizitza zerbitzua ere izan ziren hizpide. Dena dela, albisteak idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dago jakiterik zertan geratu den.

LABUR

Ingurugiro Eskolak antolatutako Natura Jardunaldiak hasiko dira egubakoitzean

Gaur, egubakoitza, Zuhaitz Eguna ospatu dute Arrasaten. Seigarren mailako 180 bat umek (ikastetxe guztietakoak) eta gura duten erretiratuek 200 bat pago sartu dituzte Garagartzan. Uribe auzotik goizeko 10:00etan irten eta 11:30ean ekin diote landaketari. Gero, parte hartzaileei hamaiketako eta oparitxo bana eman dizkiete.

Horrelaxe hasiko dira Ingurugiro Eskolak antolatutako Natura Jardunaldiak. Gero, astelehenean hasi eta martxoaren 16ra arte, Iñigo Olaziregi biologoaren *Animalien Aztarnak* izeneko erakusketa izango da Monterronen. Asteleheneetik zapatara 18:00etatik 20:00ak arte izango da zabalik gura duenarendako.

Eta erakusketak iraungo duen denboran bi hitzaldi ere antolatuko dituzte: astelehenean, martxoaren 4an, *Piztien egoera Euskal Herrian* izeneko hitzaldia emango du Migel Mari Elozegi biologoak, 19:00etan, Monterronen. Eta, martxoaren 14an, Urtzi Mendizabalek eta Rosa Agirrebeñak, *Arrasateko aberastasun naturala* lanaren egileek beste hitzaldi bat emango dute 19:00etan, hori ere Monterron jauregian.



Pankartak eta kartelak apurtuta

Zenbait herritarrek salatu dutenez, aspaldian eta, bereziki, oraingo asteko martitzen gauean, kalean ipinitako edozein pankarta, kartel eta bestelako kenduta, apurtuta, eta lurrean botata agertu dira. Oro har, apurketa hauek adierazpen askatasunaren kontrako ekimenak direla salatu gura izan dute. Iru-dian, Monterrongo pankartak zelan utzi zituzten ikusten da.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Telefono antenen gaineko urtebeteko atzerapena bertan behera utzi dute

UBANE MADERA


Udalerrian telefono antenak ipintzeko Udalak ezarritako atzerapena bertan behera geratu da EAeko Auzitegi Gorenaren aginduz. Horren arabera, hemendik aurrera, telefono antenak ipintzeko baimena eskatuz gero, aztertu egin beharko dute eskaera.

Joan den urteko apirilaren 2an, Arrasateko Udalak erabaki zuen ez zuela telefono antenak ipintzeko baimenik emango urtebetez, 2002ko apirilaren 2ra arte. Urtebeteko atzerapen horren arabera, antenak ipintzeko baimenak tramitatu ere ez zituen egingo Udalak. Horren arrazoia zen Udalak jakin gura zuela, zelanbait, antena horiek osasunarendako kaltegarriak diren edo ez.

Era berean, denbora tarte horretan, poltsikoko telefonoen antenen gaineko araudia egiteko asmoa ere bazuen Udalak.

TRAMITAZIOA

Baina orain EAeko Auzitegi Gorenak kaleratutako erabaki batek esan du luzamendua bertan behera utzi behar dutela. Auzitegiaren esanetan, Udalak antenak ipintzeko baimenak



Arrasaten hamar antena baino gutxiago daude, gehienak Murun eta Kurtzetxikin.

onartu edo ukatu egin ditzake, baina, behintzat, eskaerak aztertu eta erabaki egin beharko ditu; hau da, Udala derrigortuta dago jasotako eskaerak tramitatzera.

ERREKURTSOAK

Kontua da Udalak antenen gaineko atzerapena ezarri zuenean, poltsikoko telefonoen bi enpresak, XFERa Mviles eta Retevision enpresek, errekurtsua ipini zutela horren kontra. Izan ere, biek

eskatu zuten Arrasaten antenak ipintzeko baimena. Errekurtsu bana aurkeztu zuten, eta geroago, XFERa Mviles enpresak beste bat.

Hain justu, hirugarren hori aintzat hartu zuen Auzitegi Gorenak eta erabaki zuen atzerapena bertan behera utzi behar duela.

Orain, Udala antena horien gaineko araudia egiten ari da. Bestelako udalerrri batzuen eta EUDEL-en ereduaz aztertzen ari da.

Arrasateko zinegotzi sozialistek egoera salatu

UBANE MADERA

Arrasateko zinegotzi sozialistek idatzi bat bidali dute herritarren etxebizitzetara; euren esanetan, Arrasateko Udalean bizi duten egoera salatzeke egin dute hori. EA eta EB ere kritikatu dituzte.

Arrasateko PSE-EE alderdiko zinegotziek Arrasateko Udalaren gaineko gutun bat bidali dute oraingo asteburuan herritarren etxebizitzetara. Euren esanetan, Arrasateko Udalean uñe honetan bizi duten egoera salatzea da gutunaren asmoa. Horrez gain, beste hiru gai ere jorratu dituzte zinegotzi sozialistek.

EA ETA EB ALDERDIEN KONTRA

Batetik, Eusko Alkartasunaren eta Ezker Batuaren jarrera kritikatu dute. Alderdi sozialistako bozeramaile Paco Garciaen esanetan, "Batasuna gobernuan dago, baina EAren eta Ezker Batuaren laguntzarekin. Badakigu azken bi alderdi horiek demokratikoak direla, baina, era berean, ez dira indarkeriaren eta terrorismoaren mundutik aldentzen. Uste dugu ezin dela udal bat gobernatzen jarraitu Batasunarekin batera, harik eta azken hori terrorismoaren mundutik aldentzen ez bada".

BI MOTATAKO HERRITARRAK

Bestetik, Arrasaten bi motatako herritarrak daudela salatu du zinegotzi sozialistek. Batetik, taberna jabeak: "Horiei isunak ipintzen dizkiete ordutegiak ezarazteko mugatzen dituzten legeak ez betetzearren". Eta, bestetik, lege berak bete ez arren, inolako zigorririk jaso barik bizi diren herritarrak ere badaude.

Eta, hirugarrenik, Arrasateko Euskal Autonomi Erkidegoan herririk zikinena dela salatu dute. Gainera, esan dute Udalak ez duela hori konpontzeko asmoa ere egiten.

Zinegotzi sozialisten taldeak adierazitakoaren arabera, idatzi hori ez da herriko etxebizitzetara bidaltzen duten lehenengo gutuna eta ez da azkena ere izango. Paco Garcia adierazi digunez, "herritarrak informatu gura ditugu, Arrasateko Udalaren eguneroko kotasunaren berri ematen ari gara: zer ari den gertatzen, zer dagoen ondo eta zer gaizki... Dugun oposizio papera ari gaituz betetzen. Uste dugu horrela idatziak bidalita herritarrak gertatzen ari denaz jabetzeko modoa onena dela".

Orain, idatzi horien ondorioz, EA eta PSE-EE alderdiak bata bestearen kontrako salaketak egiten ari dira.

Espainiako eta Frantziako estatuen jazarpenari aurre egiteko, barauak

UBANE MADERA

Euskal Herrian zenbait baraualdi egiten ari dira hil honetan. Batzuek Iruñean, beste batzuek Gasteizen, Donostian eta Baionan. Guztiak, oro har, "Espainiako eta Frantziako estatuen jazarpen estrategia salatzeke" ekimenak dira, baita Segi eta Askatasuna taldeen ilegalizazioa salatzeke ekimenak ere. Baraualdia egiten ari diren artean, Lur Pagoaga arrasatearra dago. Donostiako Artzai Onaren elizan dago Lur. Joan den domekatik gaur arte (egubakoitza) izango da

baraualdia egiten. Haren esanetan, "Espainiako eta Frantziako estatuen jarrera ez demokratikoa eta euskal herritarren eskubide zibil eta politikoen urraketak salatzeke" egiten ari dira baraualdi horiek.

JOSU URIBETXEBERRIA

Bestalde, Josu Uribe txeberrria preso arrasatearra zigortu egin dutela salatu du Iheslariak Etxera elkarteak. Esandakoaren arabera, joan den zapatuan, hilaren 23an, anaiarekin zuen bisean biseko bisita ukatu egin zioten eta bakartzera zigortu Kadizko Puer-

to de Santa Maria kartzelan. Bisita aurreko araketan guztiz biluzarazi gura izan zuten zaindarrak. Uribe txeberrriak esan zuen hori legez kanpoko delatza eta ez zen biluztu. Horregatik zigortu egin zuten arrasatearra. Iheslariak Etxera taldeak salatutakoaren arabera, presoaren anaiak 2000 kilometro baino gehiagoko bidea egin zuen anaia ikusteko, eta bisita ukatu zioten. Gaineratu du "beste behin gure preso eta senideen eskubideak zapaldu dituztela ahoa *demokrazia, giza eskubide* eta halako hitz potoloz beteta darabilten sasi-demokratek".

Kolektorearen lanak direla eta, arratoiak lekuz aldatzen hasi dira

UBANE MADERA

Herriko ur zikinak batzeko kolektorea ipintzen ari dira Arrasaten. Horretarako, hobiak sartzen ari dira lurpean; ondorioz, lur-mugimenduak eta zaratak eragiten dituzte. Hori dela eta, arratoiak herriko beste leku batzuetara joan dira. Bereziki, Santa Teresa, Jose Luis Inarrara eta Maka-

zenara. Edozelan ere, ezin da esan egoera larria denik. Udalak kontrolpean du eta dagoeneko abian dira arratoiei aurre egiteko neurriak. Bereziki, aipatutako auzo horietan ari dira jarraitzen egiten. Arrasaten Bilper izeneko enpresa arduratzen da betebeharrak. Enpresa horrek adierazitakoaren arabera, ezin da esan Arrasaten arratoi-

asko dagoenik. Askoz ere gehiago egi dago Euskal Herriko beste herri batzuetan.

Dena dela, eta nahiz eta egoera kontrolpean izan, Udalak adierazi du oso inportantea dela herritarren jokabidea. Izan ere, askok janaria botatzen egi dute katuen dako eta usoendako, eta askotan arratoiak jaten dute. Horrela, arratoiak erakartzen dituzte.



Auzo Lagunek berriro hartu du langilea

Auzo Lagun enpresak berriro ere hartu du azaroan kalera bota zuten langilea. ELA sindikatuak emandako informazioaren arabera, langilea berriro onartzeaz gain, Auzo Lagun enpresaren eta ELAren arteko harremana bere onera itzuli eta, gainera, sendotu egin da. Gogoratu azaroan, Auzo Lagunek ospitalean jarduten zuten langile bat kalera bota zuela. ELAko egoera salatu zuen, eta bidegabekoa zela esan. Epaitegietara ere jo zuen. Epaileak langileari eman zion arrazoia. Eta ELAko, bestalde, Auzo Lagunekin zituen harreman ekonomikoak eten egin zituen.



HERRIKO BERDEGUNEAK TXUKUNTZEN


Neguari ez zaio askorik geratzen dagoeneko, eta udaberria gainean daukagunez, Udalak herriko berdeguneak txukuntzeko erabakia hartu du. Oraingo egunetan hainbat langile izan dira Monterron parkea, biribiletako loreak eta beste hainbat berdegu-

ne txukuntzen, eta herriak asko eskertzen du hori. Lanak amaitzerakoan herriak itxura alaiagoa izango du, eta hurrengo pausoa herritarrok egin beharko dugu: jartzen dituzten loreak eta berdeguneak errespetatzea, hain zuzen ere.



NORA BEGIRA ?

Dagoeneko konponduta dago, baina bateren bat joan den astean despistatu samar ibili zen, eta konturatu zenerako pibotea aurretik eraman zuen. Pibote automatikoek, berriz, zeresana ematen jarraitzen dute: asteburuan, San Frantzisko Xabier ondoan dagoena erdi igota egon da. Piboteen gaintetik pasatzeak beldur apur bat ere ematen du.



JOXEAN ORMAZABAL ARIZMENDIKO IKASLEEKIN

San Viatoroko DBHko lehen mailako ikasleek Joxean Ormazabalen bisita izan zuten martitzen goizean. Besteak beste, *Pernando Amezketarra*, *Mari Pertxenta* edo *Kittano* liburuak idatzi dituen idazleak gauza asko izan zituen kontaktzeko. Eta

esan beharrik ez dago San Viatoroko ikasleak inoiz baino gusturago izan zirela idazlearen kontakizunak entzuten. Bere bizitzaren hainbat pasarte kontatu zituen, eta idatzi dituen liburuen inguruan ere mintzatu zen euskal idazlea.



ZE ORDU DA?

Hainbat ordularik, ordua behar den bezala eman beharrean, guztiz kontrakoa egiten dute, eta nahastu egiten gara. Argazkikoa da horren adibide bat, beti ordu bera adierazten du-eta. Argazkia badakizue nongoa den dagoeneko; hortaz, ordularia konpontzeko gomendioa egingo diegu, beti izaten da-eta lagungarri ordua jakitea.



JULEN IRIONDO

Mondra eta Bergara taldeak, joan den astean Agorrosin ondoko futbol zelaian jokaturako partiduan.

FUTBOLA

Mondrak liderraren kontra argituko du amaieran goian izango den edo ez

Bergaran irabazi eta gero, Mondrako mutilek posible ikusten dute liderra menderatzea

XABIER URZELAI

Hamaika astez partidurik galdu barik egon eta gero, Mondrak datozen hiru asteotan gauza asko argituko ditu. Hasteko, oraingo asteburuan, liderra izango da Atxabalpen. Partidua irabaziz gero, goiko postuak estutu egingo dira.

Zapatu arratsaldean, denboraldiko partidu erakargarrienetako bat izango da Atxabalpen. Mondrak Amaiak Bat liderraren bisita izango du, eta, horrela, arrasatearrak orain arte eginda-

ko lanarekin jarraitzeko asmoz zelairatuko dira.

BERGARAN, ZORTEA LAGUN

Joan den astean Bergaran jokatu zen partiduan mondragoetarrek gura baino gehiago sufritu zuten. Lehenengo zatian aukera garbiak izan zituzten, baina gol bakarria egin zuten. Gola Ruben Ruedak egin zuen falta jaurtike-ta baten.

Bigarren zatian Mondrak behera egin zuen, eta Bergarak banakoa egiteko aprobetxatu zuen. Bazirudien talde biak puntu banaketarekin konformatu

beharko zirela, baina partidua amaitzeko bost minutu falta zirela epaileak arrasatearren aldeko penaltia adierazi zuen, eta Mondra taldeko aurrelari gazteenak hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardura. *Tiri-k* ez zuen barkatu eta gola egin zuen, bat eta bikoa, hain justu ere.

Oraingo asteburuan partidua irabazi gura badute, Bergaran lehen zatian jokatu zuten moduan jokatu beharko dute Arrasateko mutilek. Baina, aldiz, bigarren zatian erakutsitako jokoa egiten badute, Amaiak Bat taldeak ez du barkatuko.

Mendi eski zeharkaldia egiteko hainbat aukera

XABIER URZELAI

Mendi eski zeharkaldia egin gura duenak hainbat aukera izango ditu. Besaide MEK mendi eski zeharkaldia antolatu du martxoaren 9an eta 10ean. Eta Gipuzkoako Federazioak oraingo astebururako beste aukera bat eskaintzen du.

Arrasateko Besaide Mendi Elkar-teak mendi eski zeharkaldia antolatu du Lizarara (Huesca) martxoaren 9an eta 10ean. Irteera zapatu goizean egingo dute, goizaldeko bostetan, eta izena eman gura duenak martxoaren 4a eta 5a izango ditu horretarako. Materialik ez duenak Besaideren egoitzan materiala errentan hartzeko aukera izango du.

Horrez gain, Besaide MEK eski alpinoko irteera bat ere antolatu du martxoaren 16, 17, 18 eta 19ko zubirako. Irteera Formigalera izango da, eta izena emateko

Besaideren egoitzara joan beharko da martxoaren 4tik aurrera. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 77 30 66 telefono zenbakira deitu besterik ez dago.

BESTE AUKERA BATZUK

Eta eski zeharkaldia oraingo asteburuan egin gura duenak aukera polita izango du; Gipuzkoako Diputazioak Aisa Haranera (Jacca) ibilaldia antolatu du.

Eski zeharkaldi hori bi egunegonean egingo da, eta lehenengo eguneko kronometratua izango da. Hortaz, hara joatera animatzen direnak ibilaldia ahalik eta denbora laburrenean egiten ahalegindu beharko dira. Bigarren egunegonean, ordea, zeharkaldia lasaia izango da.

Parte hartzaileen artean, besteak beste, belantzi baten asteburu bat igarotzeko zozketa egingo dute. Parte hartu gura duzuenok Besaide Mendi Elkartera jo beharko duzue lehenbailehen.

FOTOKIROLA



Arrasateko zikloturistak, martxan

Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak domekan egingo du denboraldiko lehenengo irteera. Martxoan hasi eta urriaren amaiteko den denboraldian, guztira 30 irteera egingo dituzte, eta abuztua atsedean hartzeko aprobetxatuko dute.

Domekan, goizeko hamarretan irtengo dira txirrindulariak, eta Aramaioko bidea hartuko dute. Berrito Arrasatera itzuli eta Eskoriatzarantz joko dute, eta, Dorletako Ama agurtu eta gero, zikloturistak etxera bueltatuko dira. /X.U.

Arrasateko errugbi taldeak Irun taldearen aurka jokatuko du bihar

XABIER URZELAI

Azkeneko partiduetan etxeko taldeak ez dio eutsi denboraldian erakutsitako mailari, eta norgehiagokak aurrera joan ahala, etxeko taldeak jokalarik gutxi dituela nabaritzen da. Joan den astean, arrasateko errugbi jokalariak Getxora joan ziren goiko postuetan jarraitzeko garaipenaren bila, baina getxotarrak 26-15 nagusitu ziren.

Lehia ondo hasi zuten arrasatearrek, eta lehenengo zatian amaitzean arrasatearrak aurretik ziren (5-10). Bigarren zatian, ordea, gauzak dezente aldatu

ziren eta epaileak hartutako bi erabaki eztabaidagarrik partidua erabaki zuten. Getxok bi entseguri esker markagailuan alde polita eskuratu zuen, eta azkenean 26-15 nagusitu zen. Bihar, arratsaldeko lauretatik aurrera Arrasateko taldeak Irunen aurka jokatuko du etxean,

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



XABIER URZELAI

Iker Zugasti eta Josu Errasti mondragoetarrek gaizki hasi zuten partidua, eta ezin izan zuten erreakzionatu.

PILOTA Herriko pilotariak ez zuten euren maila erakutsi Debarro Txapelketan

Kadete, gazte eta senior mailetan Bergarako pilotariak izan ziren nagusi Uarkapen

XABIER URZELAI

Debarroko Txapelketako lehenengo fasea amaitzear dago, eta Arrasateko pilotariak ez dira hurrengo faserako sailkatu. Ezin esan, hortaz, lan txukuna egin dutenik. Udaberri Txapelketan, berriz, gazte mailako pilotariak final-laurdenak jokatu dituzte.

Eguazten arratsaldean, Debarroko Txapelketako pilota partiduak izan ziren Uarkape pilotalekuan. Arrasateko kadete, gazte eta senior mailetako pilotariak Bergarako pilotarien aurka aritu ziren, eta kanpotarrek sasoi hobeana daudela erakutsi zuten. Hiru partiduak irabazi zituzten.

KADETEEK HASIERA ONA IZAN ZUTEN
Arratsaldeko lehenengo partidua kadeteena izan zen. Jiménez eta Gozalo arrasatearrek Salegi eta Altuna bergararren kontra jokatzen.

tu zuten. Arrasatearrak ondo hasi ziren, eta markagailuan aurre hartu zuten. Lehenengo tantoetan Arrasateko bikotea aurretik izan zen, baina Bergarako pilotariak partidua berdintzea lortu zuten (10-10). Handik aurrera norgehiagoka guztiz aldatu zen, eta Bergararrek gora egin zuten bai jokoan baita markagailuan ere. Azkenean 12-22 nagusitu ziren kanpotarrek.

GAZTE MAILAN, PARTIDU PAREKATUENA
Arrasateko gazte mailako pilotariak partidua irabazi izan balute, bigarren fasera pasatzeko aukera asko izango lituzkete, baina galdu egin zuten.

Zuazuak eta Agirrek bikain hasi zuten partidua (4-0), baina bergararrak berehala erreakzionatu zuten (6-6). Partidu ezin parekatuagoa izan zen, eta sakez tanto asko egin ziren. Minutuak aurrera joan ahala, markagailuan bi taldeak pare-parean zeuden (12-12; 19-19). Arrasateko pilotariak hainbat tantotan hutsegiteak egin zituzten, eta bergararrek ondo aprobetxatu zituzten. Azkeneko tantoan, 21-21 zihozela, Zuazuak txapa behera botatu zuten pilota eta hortxe amaitu zen partidua.

SENIORREI HASTEA KOSTATU ZITZAIEN
Etxeko senior mailako pilotariak, Zugastik eta Errastik, konturatu orduko partidua maldan goratu zuten (2-10), eta, lasai jokatu beharrean, markagailuan aurrera egin nahiak hainbat hutsegite eragin zituen. Bergarako aurrelariak, Muguruzak, egun biribila izan zuten, eta hainbat tanto ikusgarri egin zituen. Gutiérrez atzelariak, berriz, ia ez zuen hutsegiterik egin, eta Arrasateko bikotea ahalegindu bazen ere, ezin partidua berdindu. 11-13 egotera iritsi ziren, baina bergararrek berriro ere egin zuten gora, eta partidua 14-22 amaitu zen.

KIROL ELKARTEA

AUKEAko Zuzendaritza batzordeko quorum aldaketa proposatu zuten egunean

Egunean egin zen osoko bilkuran AUKEAko Zuzendaritza batzordean quorum aldaketa egitea proposatu zuten. Hau da, batzarra egiteko bertan izan behar diren partaideen kopurua jaiste.

AUKEAko batzarretan hamaika kidek hartzen dute parte, eta bigarren deialdia egiten denean, beharrezkoa da sei lagun egotea. Bigarren batzar horietan lau lagunekin nahikoa dela uste dute.

IZOTZ PATINAJEA

Besaide MEko Gazte Ekintzek Gasteizera patinatzerara joateko txangoa antolatu dute

Negu partean normalean elurretara joaten dira, baina oraingo aste-buruan, eskiak alde batera utzi eta patinatzerara joateko proposamena egin du Besaide Mendi Elkarteko Gazte Ekintzak taldeak. Bost euroren truke Besaideren egoitzan izena eman dutenak bihar, zapatua, goizeko hamarretan Garibain izan beharko dira. Patinatzerara, Gasteizko izotz pista joango dira.

FOTOKIROLA



Infantiletan, Arrasate-Herrerako Sporting

Arrasateko infantil mailako taldeak norgehiagoka zaila izango du oraingo asteburuan. Zapatu goizean Atxabalpen jokatuko duten partiduan arrasatearrek Herrerako Sporting taldearen bisita izango dute. Joan den astean, Arrotxaren mutilek binakoa lortu zuten Ordiziaren zelaian. Ohorezko mailan jokatzen duen etxeko infantil taldeak, ordea, hainbat zailtasun izan ditu aurtan, eta sailkapenean atzeko postuetan dago. Ea biharko partidua irabazten duten. /X.U.

Amaiur Taberna

Tapak eskaintzen ditugu

Goizeko 7etatik zabalik
Bazkariak eta afariak

Ignazio Zuloaga 6
Tel.: 615 79 75 19

TOLDOS LECE C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto



Kenci Arrasateko mutilak, igoera faseko hirugarren garaipenaren bila

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibaloitza taldeak igoera faseko bigarren garaipena eskuratu zuen joan den astean, eta oraingo asteburuan, hirugarren garaipena eskuratzeko asmoz joango dira Nafarroa aldera. Erro eta Eugi talde nafarraren kontra neurtu beharko ditu indarrak zapa-tuan Kenci Arrasatek.

Zapatu arratsaldean, Kenci Arrasate saskibaloitza taldeak igoera faseko bigarren garaipena lortu zuen Iturripen. Aurkaria Donostiako Santo Tomas Lizeoa izan zen, eta partiduan denetarik ikusi ahal izan zen. Jokaldi onak izan ziren, baina baita hutsegite inozoak ere.

Hasiera-hasieratik argi zegoen partidu gogorra izango zela: batetik, Kenci Arrasateko jokalar asko min hartuta zeudelako, eta, bestetik, donostiarrak aurretik zirelako sailkapenean.

HASIERA KASKARRA

Arrasatearrei kostatu egin zitzaion partiduan sartzea, eta lehen laurdenean amaitzerakoan kanpotarrek hamaika puntuko aldea zeukaten (11-22). Bigarren laurdenean etxekoek erreakzio-



Kenci Arrasateko mutilak, Calahorraren kontra jokaturako partiduan.

natu egin zuten, eta donostiarrak eskuraturako alde hori bi puntu-ra murriztu zuten.

Hirugarren laurdenean arrasatearrek ondo jokatzeko jarraitu zuten, eta, hain zuzen, laurden horretan erabaki zen partidua. Donostiarrak sei puntu besterik ez zuten egin, eta etxekoek ondo aprobetxatu zuten hori. Arrasatearrek 17 puntuko aldearekin hasi zuten laugarren laurdenean. Bazirudien egin beharreko guz-

tia eginda zegoela, baina donostiarrak berriro ere estutu egin zuten, eta aldea murriztea lortu zuten. Iturripeko harmailetan urduritasuna zen nagusi. Hala ere, azken minutuetan etxekoek ondo eutsi zuten defentsan, eta azkenean Kenci Arrasate hamai-ka puntuko aldearekin nagusitu zen. Oraingo asteburuan, arrasatearrek Nafarroara joango dira, igoera faseko hirugarren garaipenaren bila.

FOTOKIROLA



Asteburu biribila AGR Arrasate eskubaloitza taldearendako

Arrasateko eskubaloitza taldeak, AGR Arrasatek, Euskal Federazioaren zigorra jaso zuen, baina partidua irabazteko asmoz kantxarazten direla erakutsi zuten joan den asteburuan. Arrasatearrek partidu bi jokatu behar izan zituzten asteburuan, eta bietan Arrasateko taldea nagusitu zen.

Zapatu arratsaldean, Bernardo Balerdiren mutilek Lezon jokatu zuten asteburuko lehenengo partidua, Aierruren kontra, eta mondragoetarrek 27-31 nagusitu ziren. Hurrengo egunean, domekan, AGR Arrasate Iturripen zeukan partiduari aurre egitea ez zen lan erraza. Etxekoek Loiola taldearen kontra jokatu behar izan zuten asteburuko bigarren partidua, eta arrasatearrek 29-23 nagusitu ziren. Nahiz eta zigorra jaso, argi dago Arrasateko taldea ez dela makurtuko. /X.U

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Estu Ta Larri	4-2
Fragel Gol - Goma2	4-3
Bazar Toki On - Txotx	2-7
Saukelu Scream - Maldifa's	4-4
Aurrera Bolie - Lasagabaster	5-4
Chapime Dribling - Iriztu Taberna	3-5
Bikain Akademia - Usotz Potroak	3-6
Usotz Potroak - Makanaki	4-4

B MULTZOA

Irati STS - AT Celaya	10-4
Komando Alpagat - D.D.K.	8-4
Bin Laden - I.K.P.	11-4
AC Surcos - E.G.D.	1-0
Etixerat - AKTA	4-3
Koka Junior Basati - Etxinai!	8-4
Abocajarro - Full Duplex	4-4

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Iriztu Taberna	24	14
2. Bikain Akademia	23	14
3. Chapime Dribling	21	14
4. Betrayer	20	14
5. Goma2	20	14
6. Usotz Potroak	17	14
7. Aurrera Bolie	16	14
8. Rayo Aldeano	14	13
9. Saukelu Scream	13	14
10. Lasagabaster	11	14
11. Estu Ta Larri	10	14
12. Makanaki	9	13
13. Fragel Gol	8	14
14. Bazar Toki On	7	14
15. Txotx	6	14
16. Maldifa's	3	14

PARTIDUAK

MARTXOAK 2, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: Aurrera Bolie - Iriztu Taberna. D.D.K
10:00: Abocajarro - D.D.K. Iriztu taberna
11:00: D.D.K - Irati STS. Abocajarro
12:00: Rayo Aldeano - Usotz P. Irati STS
13:00: KJ Basati - Full Duplex. R. Aldeano
14:00: Betrayer - Goma2. Full Duplex
15:00: AT Celaya - I.K.P. Betrayer
16:00: Chap Dribling - Bikain Akad. I.K.P
17:00: Makanaki - Saukelu S. Bikain Akad
18:00: Txotx - Estu Ta Larri. Saukelu Scre
19:00: AC Surcos - Etxinai! Txotx

MARTXOAK 3, DOMEKA

09:50: Fraguél Gol - Maldifa's. AKTA
10:50: Bin Laden - AKTA. Maldifa's
12:00: Etixerat - Azkena YK. Bin Laden
13:00: Bazar T.O. - Lasagabaster. Azkena YK
14:00: Rayo Aldeano - Makanaki. Lasagaba

Atsedena: Komando Alpagat.

B MULTZOA

	P	J
1. Azkena You Know	24	13
2. Etixerat	24	13
3. Irati STS	22	13
4. AT Celaya	20	13
5. AC Surcos	19	13
6. Bin Laden	13	13
7. Koka Junior Basati	12	13
8. I.K.P.	12	13
9. Komando Alpagat	11	13
10. Abocajarro	10	12
11. D.D.K.	9	13
12. E.G.D.	6	13
13. AKTA	6	13
14. Full Duplex	5	13
15. Etxinai!	1	13

BIGARRIN FASERAKO SAILKAPENA JOKOAN

LEHENENGO ZORTZI TALDEAK SAILKATUKO DIRA

Oraingo asteburuan, lehenengo faseko azken bi puntuak izango dira jokoan, eta talde batzuek hurrengo fasera pasatzeko derrigor beharko dituzte puntu horiek. A taldean Rayo Aldeano eta Saukelu Scream taldeak arituko dira zortzigarren postu hori bete guran. B multzoan, aldiz, Koka Junior Basati, I.K.P, Komando Alpagat eta D.D.K, taldeek borrokatuko dute zazpigarren eta zortzigarren postuak eskuratzeko.

BIGARRIN FASEAN, LEGE BERRIAK

Urtero moduan, bigarren fasea hasten denean txapelketako hainbat arau aldatu egingo dira. Aldaketa horiek atezainei eragingo diete bereziki. Besteak beste, ezin izango dute euren taldeko jokalar batek eginiko pasea eskuekin hartu. Hortaz, argi ibili.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Amaikak Bat	Erregionala. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
Pasajes - Arrasate	Ohor gazt. Zapatuan. 18:00. Pasaian.
Arrasate - Donibane	2. gazt. Domeka. 11:00. Atxabalpen.
Zumaiaiko - Arrasate	Ohor Kadete. Domeka. 10:30. Zumaian.
Arrasate - Herrerako Sporting	Infant. Zapatua. 11:00. Atxabalpen.
Neskek atsedena dute.	

SASKIBALOA

Erro eta Eugi - Kenci Arrasate	Seniorrak. Zapatuan. 19:45. Iruñean.
Irungo Beti Gazte - Kenci Arrasate	23 urte azp. Domekan. 12:00. Irunen.

ESKUBALOA

Hegialde auto - Arrasate	Seniorrak. Domekan. 11:30. Kanpoan.
Arrasate - Donibane	Seniorrak. Domekan. 11:30. Musakolan

ERRUGBIA

Arrasate - Irun	Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.
-----------------	--

EMAITZAK

ERRUGBIA

Seniorrak: Getxo - Arrasate	26-15
-----------------------------	-------

ESKUBALOA

Seniorrak: Aierru - AGR Arrasate	27-31
Seniorrak: AGR Arrasate - Lolola	29-23

SASKIBALOA

Seniorrak: Kenci Arrasate - ST Lizeoa	77-67
---------------------------------------	-------

FUTBOLA

Erregionala: Begara - Mondra	1-3
Ohor gazt: Arrasate - Beasain	4-1
2. gazt: M. Bihotza - Arrasate	6-2
Ohor kadete: Arrasate - Añorga	8-1
Infantil: Ordizia - Arrasate	2-1
Neskek: Amaikak Bat - Arrasate	0-0

ELKARRIZKETA

RAKEL MURGIENDO/GOIKOBALU TXIKI ETA GAZTEKO ZUZENDARIA

“Abesten erakutsi eta euskal kantutegia ezagutzera ematen dugu”

ARRASATE IRRATIA

Rakel irratan izan zen, zuzentzen dituen Goikobalu Txikiz eta Goikobalu Gaztez berba egingen. Horrez gain, denon ahotan ibili den *Operación Triunfo* eta horrek herriko kantagintzan izan ei duen eragina aztertu zuten.

Zer deritzozu *Operación Triunfo* saioak izan duen arrakastari?

Batetik, komunikabideen indarra argi eta garbi ikusi da. Saioa belarrietatik, begietatik eta leku guztietatik saldu digute. Eta guk irentsi egin dugu sartu dugutena. Bestetik, musika komertziala da, eta saioaren helburua non dagoen argi ikusten da: ahalik eta gehien saltzea eta, era berean, oso musika zehatza egitea, Eurovision-erako musika, hain zuzen. Orijinaltasun eta sormen falta dagoela uste dut.

Zuk, abesbatzako zuzendari gisa, zelan ikusi duzu *Operación Triunfo* saioa parte hartzaileen maila?

Onartu beharra dago abeslariak oso onak direla. Baina zer erakutsi dieten ikusi da. Märgolariei egiten dieten moduan, kopiatuz eta kopiatuz abeslari onak izango direla esan diete. Era berean, abesten erakutsi diete, baina musika mota bat, estilo bat, ahotsa zelan landu... Hori guztia modu baten bakarrik erakutsi diete. Nire ustez, orijinaltasuna eta norberaren sormena ez dira landu. Abeslari bakoitzaren izaera ez da batere errespetatu; nire ustez, behintzat.

Eta gertatu izan zaizu entseguetan zure ikasleek telebistako saio horretako abestiak kantatzen entzutea, zeuk aginduta ez bada ere?

Neuk aginduta ez, behintzat, baina bai entzun ditut kantuan. Argi dago, esaterako, *A tu lado* izeneko kantua niri ere belarrietatik sartu zaidala dagoeneko eta ia buruz ikasi dudala. Autobusean joaten garenean hori abesten dute, eta entseguetan ere gura izaten dute. Baina hori ez da gure lana. Abesbatzaren helburua da kantatzen erakustea eta gure ohi-tura edo kantutegiak dauden abestiak, ahal den neurrian, ezagutzera ematea. Hala ere, gaur egungo kantua ere abesten ditugu: adibidez, Beatles taldearen kantua, Japoniako herri abestiak, Afrikako kantu batzuk ere...

Eta, zure ustez, saio horrek izan duen oihartzunak musika zaletasuna ere hazi du?

Ez dakit horregatik izan den edo beste zerbaitegatik, baina otsail erdialdean hogeita hamar neskatila eta mutiko bi sartu dira.



IKER BARANDIARAN

“Urtarrietik hona hogeita hamar neska-mutikotik gora eman dute izena gurean”

Asko harritu gaitu. Ez genuen deialdi berezirik egin. Irailean egin genuen urteroko deialdia, eta hamar bat-edo aurkeztu ziren, urteroko kopurua, gutxi gorabehera. Baina urtarrietik aurrera, astero-astero, jendea apuntatuz joan da. Guztira, Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gazte batuta, hirurogeita hamar lagun gabiltza. Ez dugu inoiz halako kopururik eduki. Ez dakit zein izan den arrazoia. *Operación Triunfo* izan bada, ba aurrera!

Zelako harrobia dago Arrasaten?

Nik hamabost urtetik gorako taldetxo bat daukat. Orain dela zazpi edo zortzi urte sartu ziren, nagusienetakoak dira, eta baliteke haietakoren bat animatzea.

“Nire ustez, ‘Operación Triunfo’ saioan ez dira orijinaltasuna ezta sormena landu”

Duela hilabete-edo, Amaia Udal Antzokian *Horra Mari gabon* ipuina egin genuen eta berrehun bat ume ibili ziren abesten, hamabost urtetik gorako dezentente. Ibarrean, kantatzeko zaletasun handia dago, bai Oñatin, bai Bergaran, eta Arrasaten, zer esanik ez.

Noiz egiten dituzue entseguak? Eta izena emateko nora edo norengana jo behar da?

Goikobalu txikikoek (zortzi eta hamabi urte bitartean) egunetan entseatzen dute, 19:00etatik 20:00etara; eta gazteek (hamabi urtetik gorakoek) martitzenean, 17:00etatik 18:00etara; biek hala biek, Gazteluondoko aretoan. Interesatuak jo dezatela hara, ondo hartuko ditugu.

EMAKUME TXOKOA

2002ko martxoaren
8ko egitaraua

Martxoak 6, asteazkena.

19:00etan, Gorabera film laburra izango da ikusgai Monterronen.

Martxoak 7, osteguna.

21:30ean, zinekluba izango da Amaia Udal Antzokian: Código desconocido.

Martxoak 8, ostirala.

19:00etan, manifestazioa izango da. Seber Altube plazatik irtengo da.

20:00etan, luntxa izango da Udaletxeko osoko bilkuren aretoan



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sailsa ■



JOXE ARETA GOÑI "JUXE"

Argazkian agertzen diren Nuevo Catecismo Católico taldeaz gain, Señor No kementsuak ere arituko dira.

SEÑOR NO ETA NUEVO CATECISMO CATOLICO/MUSIKA TALDEAK

Donostiako talde biek disko bana aurkeztuko dute martxoaren 8an

IKER BARANDIARAN

Kontzertu interesgarria eskainiko dute martxoaren 8an Arrasateko gaztetxean Donostiako Nuevo Catecismo Católico eta Señor No taldeek. Lehenengoak *Scarred for life* lana aurkeztuko dute eta besteek *Siempre te dire que no*.

Martxoaren 8a aukeratu dute Donostiako bi talde horiek euren disko berriak Arrasateko gaztetxean aurkezteko. Izan ere, Nuevo Catecismo Católico taldekoek *Scarred for life* lana iaz kaleratu zuten, abenduan, baina orain arte ez dira gurera aurkeztera etorri. Horiek ikustea gutxi izango balitz, Donostiako Señor No taldeak ere diskoa aurkeztuko du hemen, baina primizia gisa. Euren laugarren lan luzea dena, *Siempre te diré que no*, urtarrilean Valentzian grabatu zuten eta disko hori aurkezteko emango duten lehengo kontzertua Arrasaten izango da.

BIAK ENBOR BERETIK SORTUAK

Esan beharra dago Donostiako bi talde horiek Espainiako Estatuan dauden punk-rock eta rock-and-roll estiloetako talde onenariakoak direla. Egia esatearren, ez dute inoiz emanaldi kaskarrik egiten. Ez da gutxi.

Bi taldeetako zenbait partaidetarako 80ko hamarkada bukaeran talde berean jotzen zuten, La

Nuevo Catecismo Católicok seigarren diskoa aurkeztuko du eta Señor Nok, laugarrena

Bi talde horiek Estatuko punk-rock eta rock-and-roll estiloetako talde onenariakoak dira

Perreran, hain zuzen ere. Eta talde hori 90eko hamarkadan desegin eta gero, bi taldekidek Señor No sortu zuten, eta beste bik, Nuevo Catecismo Católico.

Nuevo Catecismo Católico Señor No baino lehenago jaio zen, Arturo eta Gonzalo Ibáñez anaien ahaleginari esker, eta dagoeneko hamar urte beteko dituzte aurten Donostiako Buenawistako lokaletan entseatzeko hasi zirenetik. Hainbat partaide aldatu badituzte ere, Espainiako Estatuan zehar kontzertu ugari eman dituzte eta duela gutxi batu zitzaizen Eneko abeslari berriak

odol gaztea eman dio taldeari. Hala ere, aski ezagunak dira gure artean, sarritan izan dira eta Arrasateko gaztetxean kontzertuak ematen.

Nuevo Catecismo Católico taldeak sei disko eta hainbat single atera ditu dagoeneko. Lehenengo biak (*Nuevo Catecismo Católico* eta *En llamas*) Bizkaiko Goo Records-ekin, hurrengo biak (*Generación Perdida* eta *Aún no habéis visto nada*) Castellongo No Tomorrow disko etxearekin, eta azken biak (*To hell & back* eta *Scarred for life*) Madrilgo Punch Records-ekin. Esan beharra dago azken bietan izan ezik (horiek ingelesez) beste guztietan gaztelaniaz kantatu izan dutela.

Señor No taldeari dagokionez, La Perreran ibilitako Xabi eta Mikel Andonirekin eta Imanolekin batu eta Donostiako Buenawistako lokaletan entseatzeko hasi ziren. Horiek ere Espainiako Estatuak hainbat lekutan eman dituzte kontzertuak eta Arrasateko gaztetxea ez da salbuespen izan, jakina.

Single dezente ateratzeaz gain, hiru disko kaleratu dituzte (*Señor No*, *No Mundo* eta *No me hables*), hirurak Castellongo No Tomorrow disko etxearekin. Eta horrez gain, urtarrilean, Valentzian izan ziren euren laugarren diskoa (*Siempre te diré que no*) grabatzen. Disko hori Loly Jackson disko etxeak atera du eta hemen, Arrasaten, aurkeztuko dute.

Emakume zinegileen zikloa, martxoko zineklubean

IKER BARANDIARAN

Aurreko urteetan moduan, martxoaren 8an Emakume Langilearen Eguna dela gogoratu eta hilabete zehar ikuspegi bera emateko asmoz, eguenetako zinekluba emakume zinegileei eman diote.

Aurreko urteetan moduan, Udaleko Emakume Sailak eta Kultura Sailak, lankidetzan, martxoaren 8ko leloarekin *Emakume Langilearen Eguna* eta leloak daukan izpirituarekin bat egin dute. Hau da, eguenero Amaia Udal Antzokian egiten den zinekluba bereiztea. Aurten ere, martxoko eguenetan Amaia Udal Antzokian ikusgai egongo diren filmak emakume zinegileek egin-

dakoak izango dira.

Gauzak horrela, eguen honetan hasiko da emakume zinegileen zikloa. Lehenengo filmak *Cóndigo Desconocido* izango da. 2.000. urtean Michael Haneke frantsesak egina, Cannesko zinemajaialdian oso harrera ona izan zuen, eta Parisen gertatutako hainbat istorio nahasten ditu: jende xumearen istorioak, hain zuzen ere.

ASIA ERE GOGOAN

Irango Babak Payamik egindako *El voto es secreto* eta Patrice Chéreau ingelesak egindako *Intimidad* filmak ere ikusgai egongo dira. Lehenaren zuzendariak Veneziako jaialdian saria jaso zuen, eta bigarrenak Berlinen film eta emakumezko aktore onenaren sariak jaso zituen.



Andaluziako Eguna ospatuko dute Al-Andalus elkartean

IKER BARANDIARAN

Andaluziako Autonomia Estatutua bozkatu zuteneko urteurrena dela eta, Andaluzia Eguneko ekitaldiak ospatzen dihardute Al-Andalusen atzo ezker. Ospakizunak hilaren 3an bukatuko dira.

Arrasateko andaluziarrek badakite jaiak ondo ospatzen. Hala erakutsi izan dute orain arte. Aste honetan barrena, euren jaioterriarekin lotutako egun garrantzitsu bat ospatzen dihardute. Asteburu honetan, andaluziarrek Andaluziako Autonomia Estatutua bozkatu zuteneko urteurrena beteko da, eta hori gogoratzen Andaluziako Eguna ospatu ohi dute urtero.

EGITARAU BETE-BETE

Aurrez hemen idatzi edo edonork jakin ahal izan duen moduan, Al-Andalus elkartekoak oso ekimentsuak dira eta ekitaldi asko antolatzen joera eta erraztasuna daukate. Oraingoan ere, ez dute salbuespenik egingo. Atzotik hasita domeka arte egitarau

zabala antolatu dute.

Atzo bertan hasi ziren egitarau bereziko ekitaldiak, 19:00etan. Presidenteak *agurra* egin zuten, ohorezko ardoa dastatu zuten eta Al-Andalusko koru erroziroak Andaluziako ereserkia abestu zuten. Gero, 20:00etatik aurrera, Andaluziako poesien errezitaldia egin zuten.

Gaur ez dute ekitaldirik egongo, baina bihar, gogor eutsiko diote. 11:00etan, Sevillana *manié-a* izango dute, eta 11:30etan, parrillada. Bazkal ostean, berria, 16:00etatik aurrera, umeendako jokoak egongo dira, eta 19:00etatik aurrera, nagusiagoendako ekitaldiak: Sueños de Andalucía dantza taldeak emankizuma eskainiko du. Iluntzean, 21:30ak alde-bera, bazkide eta lagunendako afaria, eta 00:00etan, Duo Feeling taldearekin dantzaldia izango dute.

Andaluziako Egunaren ospakizunekin bukatzeko, domekan, 19:00etatik aurrera, *Alegria de la Sierra* eta Al-Andalus talde erroziroak arituko dira. Andaluziako ereserkia ere abestuko dute. Domekan, egun osoan barrena, puzgarriak egongo dira.

E, TXO!

GUREGAIK / MALABARISTAK

Abilezia eta oreka pixka bat lantzea nahikoa da malabarrekin ibiltzeko

IKER BARANDIARAN

Arrasaten baino gehiago, hiriburuetan eta zenbait girotan hedatuago dago malabarismoa. Azken baten, zirkuko mundutik at, kalean bola edo mazo batzuk airera jaurti eta hartzean datza.

Askotan jatekoa kalean irabazten dutenekin edo zirkoarekin, hau da, ikuskizunarekin (txikia zein handia), lotzen dugu. Edozelan ere, malabarismoa zaletasun handia da geroago eta gazte gehiagorendako.

Izan ere, malabarismoa egiteko materiala eskuratzea ez da oso erraza; are eta gaitzagoa, gainera, geroago eta material berezituagoa behar izanez gero. Ohi-

*Malabarismo
sinpleenak egiteko
oinarrizko
materiala zuk zeuk
ere egin dezakezu*

koena bolekin ikastea da. Denda batzuetan salgai egoten dira, baina globoak arrozarekin edo alpis-tearekin betez gero, bola aproposak lor daitezke baita ere.

GAZTETXEAN IKASTAROA IRAGANEAN
Iraganean, herrian malabarista gehiago ikusten ziren, hain zuzen



ARTIBOA

Egunero pixka bat praktikatuz gero, holakoak egin ahal izango dituzu.

ere, gatzetxean pare bat ikastaro egin zituzten sasoian. Bartzelonatik ekarritako bolekin, mazo-

ekin eta diabloekin ederto ikasi, eta inguruko ikastetxeetan eskolak eman zituzten batzuek.

LOTSABARIK / Ibai Mendiartx

"Txikitan, suhiltzaile izan gura nuen"

IKER BARANDIARAN

Ibai Mendiartxek gertutik bizi izan zuen *Lotsa Barik*, aurrez elkarriketatua genuen lagun batekin etorri zelako. Bi aldiz pentsatu barik, hurrengo baten elkarriketatua hura izatea erabaki zuen.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Suhiltzaile. Ilusio handia egin dit horrek betidanik. Gerora, lan hori eskuratzeko zelako probak egin behar diren ikusita, asmoa aldatu dut.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkondata eta umeekin, lan-

postu onarekin, ondo kobratzen eta Arrasaten bizi izaten. Esatea aske da, ezta?

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Diruarekin, ikasketak bukatu eta lanean hasi baino aurreko tartean. Ahalik eta gehien luzatuko nuke, dirua edukiz gero. Ea ikasketak ahalik eta lasterren bukatzen ditudan!

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari eta lagunei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Gure etorkizunak. Euskaldunonak, batez ere.

• Eta zerk ematen dizu lotsa? Jende askoren aurrean berba

egiteak.

• Zure bertute bat?

Lasai naizela eta pazientzia handia daukadala.

• Eta zure alde txarren bat?

Azkar haserretzen naizela.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Aparkalekuak, eta gazteek kirola egiteko leku gehiago: doan izango diren frontoiak...

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?


Sorbaldia, ez dudalako ikusten.

• Arrasaten ligatzen da?

Nik ez. Berez ere Arrasatekoak nahiko itxiak gara.

• Jendeari zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Bere izateko moduari.



ADINA: 19 urte • **IKASKETAK:** Ingeniaritzako lehenengo maila • **ZALETASUNAK:** Eskiatzea eta mendira joatea **LIBURU BAT:** Liburuak baino gehiago, aldizkariak: 'Pirenaica' • **FILM BAT:** 'Cadena Perpetua' • **MUSIKA TALDEA:** Bob Marley eta Negu Gorriak • **KIROL TALDEA:** Reala

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA


Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea E-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

BEHEKODENDATIK

Anuska Valor

BED'S DENDAKUE

XABIER URZELAI

Anuskak sei hillebete daroie Bed's dendan lanien. Dendie barrixe da, eta bertan lanien dabillenetik, deskantsuaren gainien gauza asko ikasi ditu. Marketina ikasi euen, Eteon, eta kurso mordue be egin ditu Anuskak. Oin, jentiek inportantzia haundixe emuten dutzo ondo deskantsetiari.

Amets bat?

Loterixie toketie.

Eta amets txar bat?

Dendie txarto juetie.

Egin dozun azken bi ajie?

Abuztuen, Torrevejara.

Txartel horixe, zeinei?

Politikuei.

Eta gorrixie?

Hori be eurei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

El señor de los anillos / La casa de los espíritus / Alejandro Sanz gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Baietz uste dot, baiñe neurriekin.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

Alkate izengo bazitze, ze hotetuko zeunke?

Trafikuaren eta aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskal Herriko etxebizitzien gainien lan haundixague egingo neuke.

Bizio bat?

Ez dauket biziorik.

Etxeko zapatillak ala zapatak?


Etxeko zapatillak.

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Ez dakit. Momentuz, hamen etxie erosi ezinka nabil, hortaz...

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Momentu honetan ez jat inor be okurriduten.



X.U.

"Oin, jentiek lehen baiño inportantzia haundixague emuten dutzo ondo deskantsetiari"

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Ez dakit, Alejandro Sanz-edo.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Ez nitzake tranpan ibilliko.

Telebisiñoko programa bat?

Eta irratikue?

Telebisiñuen ez dago fundamentuzko programa bat bera be. Bueno, *Los Simpson* / Irratixen musika programak entzuten ditut.

Gaur eguakotxa izenda, *Flex* sentiduten zara?

Ez, *Pikolin*-ekin egitten dot lo, hortaz, neuri *plin!*

Ohie da etxeko altzari inportantiena?

Baietz esango neuke. Oin, jen-

"Lehendakari izengo banitz, etxebizitzien gainien daguen arazue konponketako lan egingo neuke"

tiek badaki ondo deskantsetie oso inportantie dala.

Ohie, pertsona batendako, bindako, hirundako...

Gaur egun, ohe haundixek dagoz. Norberak ikusiko dau.

Lanbide onena ohe probatzaile ei da.

Bai, seguru, baiñe ez dakit inor horretatik bizi dan.

Bizitzaren herena lo pasetan ei dogu.

Denbora luzie da, bai. Horregaittik da inportantie koltxoi ona eukittie.

Funda nordikuek sekulako arrakasta ei daukie.

Normala da. Oso komoduiek die, eta lo be edarto egitten da.

NIREBIDAIAHURA/ Mainer Belategi

Irlanda, Eskozia, Thailandia, Australia, Indonesia / Orain dela hiru urte hasi zuten bidaia

Aurreko astean Australiara bidean utzi genituen Mainer eta bere mutil-lagun Asier. Australiara Sydney, hain justu ere, furgoneta bat erosi zuten eta furgoneta hura euren etxetxo bilakatu zuten.

Australian zehar ibili ziren furgonetan. Thailandia erositako produktuak merkatuetan edo kalean salatu zituzten, eta hori zen euren ogibidea. Australian hamar hilabete egin zituzten. Furgonetarekin hara eta hona ibili ziren, baina ez zuten diru askorik gastatu tailerretan: "Eske-rrak Asier mekanikoa den, bestela diru mordoa gastatuko genukeen furgonetak izan zituen arazoak konpontzen".

Australiak gauza asko egiteko aukera eskaintzen dizu, eta bikote horrek ondo aprobetxatu zituen aukera horiek. "Egia esan behar badugu, urtebetean pasta besterik ez dugu jan, eta, horrela, aurreratzen genuen diru apurra beste gauza batzuk egiteko aprobetxatzen genuen".

Bikote horrek Australian alde batera utzi zuen denboraren morrontza: "Australian ez geneukan ezertarako presarik. Saltzekoa, etxea eta janaria gurekin generamatzan, eta hondartza bat ikusi eta polita bazen, hantxe geratzen ginen gura adina denbora". Joan den urteko Gabon zahar gaua hondartza bakarti baten igaro zuten Mainerrek eta Asierrek. Lekua ikusgarria ei zen. Sua egin, eta afari berezi batez gozatzeko aukera izan zuten. Bidaia horretako mila argazki baino gehiago dituzte, eta euren dako benetako albortza da. Gaur egun, bikotea Jakan bizi da, eta Arrasatera mitzean behin etortzen dira. Astean barrena *snow*-a egiteko aprobetxatzen dute, asteburuetan lan egin behar izaten dute-eta. Negua amaitzean, ordea, nork daki.

XABIER URZELAI



Asier eta Mainer Australian erosi zuten furgonetarekin.



"Australian lasai bizi ginen: orain hemen, bihan han..."

"Gabon zahar gaua hondartza baten igaro genuen"

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

gorka ileapaindegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate

943 77 13 78

Gorka
ileapaindegia

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Batzuen ustez, Portaloiko bankuetan hartzen dira Arrasateko erabaki garrantzitsuenetako batzuk.

Arrasateko biztanleriaren kopuru garrantzitsu bat erretiratuak dira

IKER BARANDIARAN

Ezagun da garatuak derit-
zegun herrialdeetako
biztanleria zahartzuz edo
nagusituz doala. Hau da,
ume gutxiago jaiotzen dira eta
bizitza tasa luzatuz doa. Hortaz,
biztanleria geroago eta zaharra-
goa da. Eta Euskal Herria eta,
konkretuki, Arrasate ez dira sal-
buespen. Horrez gain, zenbait
urtean jendea hirurogeita bost
urte baino gutxiago izanda er-
retiratu joan da, eta, ondorioz, lan
egiten duen jende kopurua
murriztuz joan da. Hain zuzen ere,
gaur egun, Arrasatek 23.400 biz-
tanle inguru ditu eta horietatik
lau mila baino gehiagok hiruro-
geita bost urte pasatxo dituzte.
Horiei, aurrez lana utzi dutenak
batu beharko zaizkie. Jende mor-
doa, hortaz.

Ustez lan egiteko nagusiegiak
badira ere, kasu gehienetan er-
retiratuak sasoiari izaten dira eta
gauzak egiteko gogotsu, gainera.
Beste egunen baten egingo dugu
berba erretiratuak euren aisial-
dian egiten dituzten gauzez; haien

zaletasunez edo beste eginkizun
batzuek. Gaur orokorrean min-
tzatuko gara erretiratuak.

PORTALOIKO FORUA

Erretiratuak, orrialde hauetan
askotan aipatutako egoitzez gain,
kaleak ere betetzen dituzte pase-
oan zein kaleko bankuetan jarri-

Arazoendako konponbideak

Erretiratu batzuek, gustuko ez dituzten gauzak kritikatzear gain, konponbidea aurkitzeko saiakerak ere egiten dituzte. Horra hor, esaterako, ia Arrasate osoa zeharkatuko duen pasealekuaren malda mailarekin izandako kontuak. Arrasatear batek hainbat ikerketa egin eta jende nagusia hortik ibiltzeko neurriak bermatzea eskatu zuen.

ta. Gertaera gutxi egiten diete
ihes. Askotan berriemaileak ere
izan ohi dira. Azken baten, aisial-
dirako denbora luzea dute eta
eginkizun askorik ez dute izaten.

Bestalde, biztanleriaren zati
handia osatzen dute erretiratuak
eta, era berean, edozein arazo
edo egoeraren aurrean pisua dau-
ka adin tarte horretako jendea-
ren iritzia. Horra hor, esaterako,
nahiko mitifikatuta dagoen *Por-
taloiko legebiltzarra* deritzona.

Batzuen esanetan, han, Por-
taloiko bankuetan, aztertzen dira
egunero herriko berri edo kontu
garrantzitsuenak. Eta ez pentsa-
tu han batzen den erretiratu mul-
tzoaren garrantzia eta eragina
txantxetakoak direnik. Ikusi bes-
terik ez dago Udalak Seber Altu-
be eta Portaloiko aldeko bankuak
aldatzea erabaki zuenean izan
ziren prozedura luzea eta ber-
baldi bukaezinak.

Hala ere, esan beharra dago
Portaloian elkartzeko diren gehie-
nak gizonezkoak direla. Hortaz,
ikusi egin behar non dauden
emakume erretiratuak erabakiak
hartzeko guneak.

LABUR

Martxoaren 2an, zapatuan, batzar orokorra egingo dute Uribarriko zaharren etxeok

Martxoaren 2an, zapatuan, batzar orokorra egingo dute Uribarriko zaharren etxeok. Hainbat gairen artean, Zuzendaritza batzarra aldatu egingo dute. 11:30ean, Uribarriko elizan, hildakoen aldeko meza izango dute. Jarraian, 12:30ean, hain justu, batzar orokorra egingo dute egoitzan bertan, eta horren ondoren, bazkal aurrekoa izango dute ekitaldia amaitzeko.

Martxoaren 1ean, egubakoitzean, batzar orokorra egingo dute Musakolako zaharrek


Martxoaren 1ean, egubakoitzean, batzar orokorra egingo dute Musakolako zaharren etxeok. Hainbat gairen artean, Musakolako zahar egoitza berriaren egitasmoa zelari dagoen azalduko dute. Horrez gain, batzarren aurrekontuak, balantzeak eta beste hainbat gai ere izango dituzte berba. 17:00etan hasiko dute batzarra, eta gero, luntxa izango dute gerturatutako guztiek.

ZAHARREN AHOTIK

Tomas Uranga

ERRETIRATUA ETA BASERRITARRA

Tomas 1922. urtean jaio zen Maalan. Gerra ondoren, Elman lanean pasa ditu hainbat urte. Gerora, Garagartzatu egin zen zeharo.



Jakin dudanez, gaztetatik ipurterre samarra zinen?

Bueno. Maalan jaio nintzen, Zeziaga gainean. Txikitik, Zarugaldeko eskolan ikasten ibili nintzen, hamabost urte bete arte, eta nahiko bihurria nintzen. Ikasten bukatu eta lanean hasi aurretik, Aranbarri *Atano*-k eta biok Bilborako trena hartu genuen frontierantz. Solaresko bainuetxera eraman gintuzten eta gero, Santanderrera. Han anaia aurkitu nuen, eta bueltan, biok Mondragoan preso hartu eta Iruñera eraman gintuzten, La Mercedeko kuartelera. Ni etxera bidali ninduten, gazteegia nintzelako.

Eta Mondragoan uste-kabea, ezta?

Bai. Trenetik jaitsi bezain laster, nire lagunak izandakoak 'España sí, Rusia no' oihukatzen ikusi nituen. Bel-durtuta gelditu nintzen. Gero-

ra, Elman hasi nintzen, *Diez y medio* jaurtigaiak egiten.

Kaletarra izanik, Garagartzan bizi zara...

Bai, Elman nenbilela, Miren Abarrategi ezagutu, ezkondu eta hark Garagartzako Akixo baserrira eraman ninduen. Ordu arte ez nituen baserriko lanak ezagutzen. Hala ere, 60 urte bete arte lanea oinez edo bizikletan joaten nintzen. Bi seme eta alaba bat daukat, baita Martin izena daukan birbiloba mundiala ere. Garagartzan oso gustura egon arren, egunero Uribarriko egoitzara joaten naiz, oinez edo semearekin autoan.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



MONTE Taberna

**Astelehenetik aurrera,
zure gosariak, geurean.**

**Kafea, salda, pintxoak, tortillak.
Den-dena, goxo goxo.**

08:00etatik aurrera zabalik.

Maalako Errabala 2 • Tel.: 943 79 20 56



ARRASATE
Mari Aranegi
Martxoaren 5ean, urtebetetza. Zorionak, Elorrixoko eta Ziorkoaren partetik.



ARRASATE
Andoni Axpe
Martxoaren 5ean, urtebetetza. Zorionak, Elorrixoko eta Ziorkoaren partetik.



ARRASATE
Imanol Iria
Martxoaren 1ean, 3 urte. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Alazne Zubillaga
Martxoaren 3an, urtebete. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Xabier Pavón
Martxoaren 3an, 13 urte. Zorionak, Xabier Vallinaren eta Jurgenen partetik.



ARRASATE
Nerea Garzia
Martxoaren 1ean, 28 urte. Zorionak, Txominen partetik.



ARRASATE
Miren Garzia
Martxoaren 4an, 29 urte. Zorionak, Txominen partetik.



ARRASATE
Feli Etxebarria
Martxoaren 1ean, urtebetetza. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Xabier Pavón
Martxoaren 3an, 13 urte. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Oxel Aresti
Martxoaren 4an, urtebete. Zorionak! Amatxo, Eider eta Jon.



ARRASATE
Use Rodríguez
Martxoaren 5ean, urtebetetza. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Julen Cucalón
Martxoaren 8an, 5 urte. Zorionak, umezaintzako laguntzako partetik.



ARRASATE
Leire Retegi
Martxoaren 5ean, 6 urte. Zorionak, umezaintzako laguntzako partetik.



ARRASATE
Markel Morón
Martxoaren 8an, 4 urte. Zorionak, umezaintzako laguntzako partetik.



ARRASATE
Ainhoa Otadui
Martxoaren 5ean, 10 urte. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Nerea Otadui
Martxoaren 5ean, 10 urte. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Samin Larrañaga
Martxoaren 6an, 25 urte. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Jose Juan Iria
Martxoaren 4an, 41 urte. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Julen Vicario
Martxoaren 5ean, 8 urte. Zorionak, etxekoaren partetik.

Adi!

Hurrengo zenbakian, martxoaren 1etik 15era bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.



• KOPISTEGIA •

dagoeneko zuekin

Loramendi, 2 behea

20500 ARRASATE - Gipuzkoa

Tel./Faxa: 943 79 21 61

E-maila: izarra@izarra-kopistegia.com

- Fotokopiak •
- Inpresio Digitala •
- Inprimategi Lanak •
- Plastifikazioak •
- Koadernaketak •
- Fax Zerbitzua •

Gazte ikastaroak


Euskal Dantza ikastaroa:

- Martxoaren 8tik ekainaren 21erarte.
- Ostiraletan 7:00retatik 8:30ak arte.
- Lore Gazteak taldearen lokaletan.
- 10 urtetatik gorakoei zuzenduak.
- Matrikula: 9 €
- Izen emateak:
Gazte Bulegoan 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Gazte Salla ■



Ez eman buruari buelta gehiago

Iritsi da momentua.

Berokia kendu egin behar duzu!

- Gorputz tratamenduak
- Teknika aurrerakoenak
- Diagnostikoa, doan

**DEI EGIGUZU,
KONPROMISO BARIK**



AMAGARA

Erdiko Kale 54 · Arrasate
Tel.: 943 79 09 09



Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko martxoaren 1a / 17. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Ekitaldi ugari Emakume Langilearen Eguna ospatzeko

UBANE MADERA

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna da datorren barikuan, martxoaren 8an. Egun hori ospatzeko, herriko Udalak eta Itur Zuri emakume elkarteak ia aste osoko egitarau bete antolatu dute. Besteak beste, barikuan, herriko emakumeendako afaria izango da.

Astelehenean, martxoaren 4an, hasita, barikura arteko egitarau biribila antolatu dute Aramaion, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Astelehenean, Euskal Herriko arkeologiaren gaineko hitzaldia izango da arratsaldeko sei eta erdietan kultura etxean. Martitzenean, beste hitzaldi bat izango da; oraingo honetan, sorginen inguruan. Rosa Maria Aguado

izango da hizlaria. Hitzaldi hori ere 18:30ean hasiko da eta kultura etxean izango da.

Eguaztenean, berriz, antzerkia izango da ikusgai. *Lo que el norte se llevó* izeneko antzezlan ikusteko aukera izango da 18:30etik aurrera kultura etxean. Antzezlan horren bitartez, kanpo-zorraren inguruko gaia jorratuko dute.

Eguenean, beste mota bateko ikuskizuna izango da: *Los padres de ella* izeneko filma emango dute kultura etxean 18:30etik aurrera; eta gero, film hori bera komentatzeko aukera izango da, kafearekin lagunduta.


Eta bukatzeko, barikuan, 19:00etan, Gasteizko Sukuma taldeak perkusio kontzertua emango du kultura etxean. Eta gero, emakumeendako afaria egingo dute San Martin Eskolako jangelan. 20:30ean izango da afaria, eta Oletako emakumeek Udalak ipinitako autobusa izango dute afarira joan ahal izateko. Joan gura duenak aurrez ordaindu beharko du afaria: Itur Zuri elkarteak bazkide direnek sei euro, eta ez direnek, bederatzi euro.

Ekitaldiok Udalak eta Itur Zuri emakume elkarteak antolatu dituzte, Aldundiko Ongizateko Erakundeak diruz lagunduta.



ARTXIBOA

Hitzaldiak, antzerkia, zinema, kontzertua eta afaria izango dira datorren astean.



Pintada mordoa agertu dira

Joan den asteko eguen gauean, ezezagunen batek argazkian ikusten duzuen itxurarekin utzi zituen herriko udaletxearen aurrealdea eta sarrerako zati bat. Haren protestaren zergatia azaltzen duen ezelako idatzi eta argibiderik ipini barik, goitik behera margotu zituen udaletxe inguruak, esprai urdinarekin.

Edozelan ere, herriko plazako sarreran, plazan aparkatzea debekatuta dagoela esaten duen seinalea dago, eta hura ere urdinez margotuta agertu da; uste dute aparkatzeko debekarekin haserre dagoen herritarren batek egin dituela pintadak.

HERRITARREN HITZA/Rosa Mondragón • Kazetaria

ZAPPING, zapping, zapping

Nolako telebista dugun! Ez dira konformatzen ikuslea egun osoa telebista aurrean egoteko iragarki konbentzigarriak diseinatzearekin; orain, 906 telefono zenbakietara deitzeko moda ere sortu dute, baina zertarako? Akaso zuri ere gertatu zaizu: telebista programa bat ikusten zaudela, aurkezleak 906 telefono batera deitzeko gonbita egiten dizu, gehienetan sari eder bat eskuratzeko aukera behin eta berriro errepikatu ondoren.

Zergatik ez? deitzen duzu, baina *ti-ti-ti*, komunikatzen dago. Berriz ere saiatu eta, beste aldean ahots liluragarri bat entzuten duzu, musika girotuaz

ez dakit zenbat denbora itxaroteko agintzen. Bitartean, norberaren telefono fakturak gora egiten du eta 906 telefonoaren kontua potolatu egiten da. Gehienetan deitu duen ikusleak bere horretan uzten du deia, itxaroten aspertuta. Eta horri *telebista interaktiboa* esaten diote.

Egia da telebistaren negozioak errentagarritasun formula berriak bilatzeko eskubide osoa duela, baina telebista publikoak?



"Eta nork babesten du telebista ikuslea?"

Non datza telebista publikoaren eta pribatuaren arteko desberdintasuna? Iaria ikusezina dela esango nuke. Eta nork babesten du ikuslea? Nork garantizatzen dio telefono dei jakin bat egiteagatik ez diotela gehiegizko kopurua kobratuko?

Telebista kateen kompetentzia gero eta gogorragoa da. Modako azken programa ateratzeko edozer gauza egiteko prest daude. *Gran Hermano* eta *Operación Triunfo*

moduko programak gutxi badira ere, jadanik AEBetan, Frantzian, Japonen eta Australian beste programa mota berri bat asmatu dute; helburua lehiaketako partaideak erridikulizatzea da, hau da, barregarri uztea. Galdera-erantzunen lehiaketa izanik, partaideak erantzun okerra ematen duen bakoitzean, astakeriak esaten dizkiote. Aipatutako herrialdeetan sekulako arrakasta lortu dute antzerako saioek, eta badirudi laster helduko direla gugana. Bitartean, gozatu *Operación Triunfo*-ren azkenengoarekin eta prestatu *Gran Hermano*-ren 3. aldirako, badator eta!

LABUR

Kultura elkarteendako laguntza deialdia

Joan den astean, irabazi astorik gabeko kultura erakundeendako dirulaguntzak izan genituen berbegai. Guk adierazi genuen arabera, bukatuta zegoen laguntza eskatzeko epea, baina zuzenketa egin beharra dugu. Izan ere, Zuzeneko Koadrilako Kultura Sustapertzaile Zuriñe Zabala argitu digun moduan, dirulaguntza horiek eskatzeko epea datorren martxoaren 25erarte dago zabalik. Hortaz, herriko kultura elkarteak garaiz dabilta oraindik.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (bandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

PALETAKO FINALERDIAK

Atzeratutako partiduen emaitzak honakoak dira: Ojanguren-Garaita 35, Emilio-Xabi 6; eta Abarrategi-Arriolabengoa 35, Amasene anaiak 34. Gauzak horrela, oraingo asteburuan, finalerdiak jokatuko dituzte. Gaur, Armendarizek eta Orobengoak Ojangueren eta Garaitaren kontra jokatuko dute, 21:00etan. Eta bihar, 09:00etan, Barandiaran aita-semeek Azurmendi eta Arriolabengoa izango dituzte aurrez aurre. Irabazten dutenek elkarren kontra jokatuko dute paleta txapelketako finala.

ARETO FUTBOLA

Bihar, zapatua, Bañerako kadete mutilek Baro-Caloren kontra jokatuko dute 11:00etan. Eta neskek, berriz, Menesianosen kontra jokatuko dute 12:00etan. Bestalde, aurreko aste bukaeran, neskek 6-1 irabazi eta mutilek 5-10 galdu zuten.

ZINEMA

Abentura Elefantastikoa filma izango da 17:00etan.

KULTURA

Amaia, Beatriz eta Lorea, Txirritola elkarteko ipuin lehiaketako irabazleak

Txirritola Euskara Elkarteak zapatuan banatu zituen ipuin lehiaketako sei sariak. Hauexek izan dira, parte hartu duten 21 lagunen artean, irabazle aukeratu dituztenak: Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan Amaia Kortabarria lehenengo eta Ane Heriz bigarren; Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan Beatriz Azurmendi lehenengo eta Andrea Goikoetxea eta Markel Arriolabengoa bigarren; eta DBHko lehenengo zikloan Lorea Ojanguren lehenengo eta Jone Arriolabengoa bigarren.

Lehenengo Hezkuntzako irabazleei erosketa-txartelak eman dizkiete Arrasateko Discopolis edo Tamayo dendetan trukatzeko. Eta DBHko irabazleei, lehenengoari 120 euro eta bigarrenari, 90 euro. Zorionak, guztioi!



HERRIKO JOKOAK

APUSTUAK

Apustuak baino gehiago, erakustaldiak izaten ziren. Hala ere, Ibarrako jaietan, gerra aurretik, aizkora apustuak izaten ziren. Hauetako batera Agiñeta ere etorri ei zen.

Sari onak izan ei ziren: urrezko ontza edo ontza erdia.

Idi-demak ere izaten ziren. Gaur egun, proba horietan erabilitako harriak Santa Anako ermitaren aldare gisa dago bata (idiek erabiltzen zutena, handiena), eta bestea ermita aurrean (behiek erabiltzen zutena).

Jaietan, Marixekan, ahari eta oilar jokoen erakustaldiak ere antolatzen ziren. Era berean, txinga eta sokatira.

Edar edo *pegar* apusturik ez zegoen. Hala ere, neska gazteak Oleta partean prestutasun edo dotorezia handiarekin eramaten ahalegintzen ziren.

Ontzi hori sorkiaren gainean jartzen zuten, artilez eta trapuz egindako buruko bigungarrian.

'Aramaioko joko eta jolasak' Gabiñe Insausti eta Patxi Aizpurua

BOTE PRONTOAN / Enrike Gardoki · Arexolako auzo-alkatea

“Esaten dute Arexolakoa moduko eliza bi daudela Euskal Herrian edo beharbada Araban bertan”

Arexola auzoa bisitatu dugu oraingo astean. Enrike Gardoki auzo-alkateak gustura asko erakutsi dizkigu plaza eta inguruak, baita auzotik ikusten diren paraje paregabeak ere. Betiko moduan, guk auzoaren gainean galdetu diogu:

Zenbat zarete Arexolan?

Berrogei lagun inguru. Zortzi baserri eta txalet bat. Lehen bezain beste baserri, baina jende gutxiago. Nik ezagutu dudanetik hona erdi ingurura jaitsi da auzotar kopurua.

Zelan ba?

Adibidez, Untzetan sei anai gara eta neu bakarrik bizi naiz hemen. Etxe askotan pasatu da antzerakoa. Gehienak Arrasatera, Eibarrera, Antzuolara...

joan dira bizi izatera. **Aurrera begira gehiago hustuko da auzoa?**

Ez dut uste. Nik uste dut jendea berriro lasaitasun bila dabilela edo beheko zulotik irteteko gogoarekin.

Berezitasunen bat badu?

Haize gogorra ibiltzeaz gain, hemengo baserriak pila-pila eginda daude, plaza inguruan. Keizti baserria hemendik kilometro batera-edo dago, baina beste guztiak bata bestea ukitzen daude ia-ia.

Hortaz, auzotarrok elkarteko ez duzue inongo arazorik?

Bat ere ez. Eliza ere erdi-erdialdean dago, Lagun Artea lokala ere bertan dago...

Eliza berezia ei duzue.

Oso antzinakoa da. Dena da



zuzekoa eta esaten dute Euskal Herrian edo Araban horrelako bi bakarrik daudela. Ia astero etortzen da autobus bete jende eliza ikustera. Auzoan domekero erabiltzen dugu eliza, garbitu ere geuk egiten dugu. **Konpontzeko asmorik edo?** Kanpotik ez dago oso ondo, baina barrutik nahiko ondo dago. Dena dela, ibili ziren barruko egurra bistaratzeko asmoarekin, baina horretarako dirua behar da. Auzoak ezin du eta Elizarena denez...

Zer du auzoak erakusteko?

Jendeak dio polita dela, plaza ingurua-eta... Sekulako parajeak ere ikusten dira hemendik. **Dontxoren alaba auzokoa zen?** Bai, orain ere jendea bizi da han, bi etxebizitza daude.

**ASESORIA
ARRASATE**

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

**Aretz
Taberna**

Markole, 5
943 79 14 67

**CLUB
IYOLA**

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

ERRETRATUZAHARRA

Arrateko
Amabirjinaren
egunekoa

Mendia betidanik maite izan dugu hemen eta inguruan, eta, jakina, mendi-buelta dezente egin ohi ditugu.

Horren adierazle da oraingo asteko argazki zaharra. Eibarko Arrate mendian dago aterata. Gure berriemaileak uste du 1942. urteko Arrateko Amabirjinaren eguna zela, irailaren hasiera, hortaz.

Lehenengo, Gau-adorazioa entzun zuten, 04:30ean edo 05:00etan, eta gero mendirako bidea hartu zuten. Maltzogatik gora basorik baso egin ei zuten argazkiko mendizaleek egun hartan. Gero, beste aldeko bidea hartu eta Eibarrera jaitsi ziren; han bazkaldu egin zuten. Arratsalde partean itzuli ziren Arrasatera, trenez.

Hauexek dira argazkiko protagonistak: goian, erdi-erdian dagoena Jose Ignacio Velez de Mendizabal da -Jose Mari Velez de Mendizabal idazlearen aita zena. Hurrengo bien artean, berriz, ezkerrekoa Felix Arana da eta eskumakoa Felix Ajuria. Eta beheko hirurak, ezkerretik hasita,



honakoak dira: Raimundo Velez de Mendizabal, Imanol Arizaga *Txanbolin* eta Carlos Martínez.

Ikusten duzuen moduan, argazkiko guztiak mutilak dira; baina horrek ez du esan gura mendira neskekin joaten ez zirenik. Gure berriemaileak argitu digu neskekin Arantzazu eta Urbia

aldera egiten zutela, gehienbat. Eta gero, Anboto eta bestelakoetara mutilak bakarrik joaten zirela. Beste batzuetan trena hartu eta Marin aldera ere jotzen zuten, Eskoriatzara; eta handik, oinez, San Adrianera, Kurtzetara...joaten ziren. Gero, Aramaioara jaitsi eta batzuetan han

bazkalduta jaisten ziren, eta bestetan autobusa hartu eta behera, Arrasatera, bueltatzen ziren.

Argazkia: Raimundo Velez de Mendizabal
Informazioa: Raimundo Velez de Mendizabal
Urtea: 1942

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Maala kalea
eta Barrutia
etxea

Maala kalea beste bateri ere erakutsi genizuen, baina hura argazki zaharragoa zen. Argazki hartan Eukaristia eguna zela eta kalea guztiz apainduta zegoen. Oraingo argazkian, ordea, kaleari baino Barrutia etxeari eman diote garrantzia. Eskuinaldeko etxeetan, Aizkora taberna ikustez gain, Barrutia etxea ere azaltzen da, eta atzealdean Portaloia.



≈ 1950

Kantoitik sartzen den argiari esker, argazkilariak erretratua egiteko eguerdi eguzkitsu bat aukeratu zuela pentsa dezakegu.



2002

Maalako etxeak ez dira askorik aldatu, baina kalea bera asko aldatu da. Egun argiz gaitu gauean ere argi dezente izaten da orain.

Kiromasajea

Muskuluetako minak
Lunbalgiak (ziatika)
Dortsalgia
Zerbikalgiak

Mizen Azzieta

Giltzaduretako minak
(tendoiak, lotailuak)
Buruko minak
Estresa

Zerkaosteta 12 Tel.: 943 79 00 35



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE

Tel.: 943 79 15 65

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Udaberria Udaberria
Uda Uda Uda
Uda Udaberria
Uda Udaberria
Uda Udaberria
Udaberria
Uda Udaberria
Udaberria

TROKO

Erdiko kale 14 • Tel.: 943 79 46 94
ARRASATE

12.000€
12.000€
1.996.632 pezeta

- ABS
- Lau aire-poltsa (aurreko aldean eta aldamenetan)
- Direkzio lagundua
- Ateen itxiera zentralizatu urruneko kontrolarekin
- Lainotako faroak
- Control Blade atzealdeko esekidura independentea
- RDS **irradi-CDa** (aginte kontrola bolantean)



fordfocus gama:

Gasolina 75 ZPtik 115 ZPra (10.929 €-tik aurrera)

Diesela TDdi 75 ZPtik 115 ZPra (12.000 €-tik aurrera)

* Prever planak barne

ford Focus
Diseinu inteligentea



(Salneurri gomendagarria hiru ateko autoetan. Garraioa, BEZ, Matrikulazio Zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Gasolina Prever plana barne. Aleazio-hagunak aparte. Martxoaren 31ra arte balioa du eskaintzak.)

MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea, z/g
ARRASATE-MONDRAGON
Tel: 943 797 564

902 442 442
www.ford.es